



MUSIKA ELEKTRONIKOA: DJ eta elkarte berriak eskualdean

Ez da oso zaharra musika elektronikoa entzuteko ohitura Aiaraldean. Lehen zale eta DJ-k eskualdetik kanpo jo behar zuten erreferentzi bila. Azkenaldian, baina, DJ eta elkarte berriak sortu dira, txispa su bilakatzeko prest. 10. or.

Kultura

Zubiaur eraikuntzak: 20 urteko proiektuaren likidazioa 4. or.

Jendartea

Dozenaka ikasle dabilta Selektibitatea egiten 7. or.

Iritziak:

TXEMA

URKIJO 2. or.

RAUL ARZA 6. or.

ASIER

AMONDO 7. or.

PATXI

ITURREGI 10. or.

IÑAKI ISASI 12. or.

JABI

ASPURU 11.or

ITZIAR URKIJO 16. or.

aiaraldea



Aiaraldeko
hamabostekaria
2014 /// Ekainak 5 ///
16. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Pablo Gorostiaga eta Patxo Murga preso laudioarrak askatzeko eskatu dute Aiaraldeko alkate guztiek



Ukrainia, Bielorrusia, Errusia eta Saharako dozenaka ume, Aiaraldean uda pasa



Ekainaren bigarren hamabostaldian etorriko dira Aiaraldera Ukraina, Bielorrusia, Errusia, Sahara eta Ukrainiako hainbat ume, eskualdeko familiekin uda pasatzera. Bikarte, Sahara Eutsi, Txernobilgo umeak eta Txernobil elkarte arduratzen dira harreraren nondik norakoaz.

Udan umeak hartzen dituzten familien kopurua jaitsi egin dela azpimarratu egin dute elkarteek. Batzuek krisi ekonomikoa jarri dute horren kausa nagusi moduan. Beste batzuek, berriz, gako arrazismo eta xenofobiaren ugaritzean dagoela salatu dute.

Bi hilabete igaroko dituzte herrialde horietako haurrek eskualdean, abuztura arte.

OILOBIDE: 5.000 arrautza ekoizten ditu egunean Ledoñoko Oilobide egitasmoak, ekoizpen eredu automatizatu erabiliaz 6 or.

Konpromisoa

gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin



JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar, z/g • 01400 Laudio (Araba) Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es

_iritzia



Txema
Urkijo
ABOKATUA

_Leihotik

Barkamenaren balioa

Hau irakurri dut Twitterren: “Top 5 de las palabras más complicadas de pronunciar en castellano: otorrinolaringólogo, desoxiribonucleico, paralelepípedo, ovovíparo y...PERDÓN”. Itzela iruditut zait. Izan ere, barkamena eskatzea da gizakioi gehien kostatzen zaigun gauzetako bat; batez ere, eskaera zintzoa bada eta autokritikan oinarritutako hausnarketaren fruitu, hau da, zerbait gaizki egin izana onartzen badugu. Euskal gizartean ziklo bat ixten ari gara indarkeria politikoari dago-kionez. Etorkizunera begiratu nahi dugu, eta guztion artean bizikidetzat integratzailea, errespetuan oinarritutakoa, eraiki. Horretarako, baina, komeniko litzake atzera begiratzea, izandako jarrerak berrikustea eta gaizki egindakoak onartzea. Eta benetan zerbait gaizki egin genuela ondorioztatzat gero, barkamena eskatzea. Ederra izango litzateke hori. Batzuek diote barkamena eskatzeak kutsu erlijiosoa duela, kontu intimo eta pertsonala dela. Dena den, nire ustez, zentzu publikoa ere badu, eragindako kalteak eta bidegabekeriak publikoak izan baitziren. Gainera, barkamen zintzoa onuragarria da eskatzen duenarentzat eta ematen duenarentzat. Lehenengoa sendatu egingo da, eta bigarrenak jarrera hobearekin egingo dio aurre etorkizunari. Aurrekoan, jada europarlamentarioa den hautagai bati galdetu zioten okerra izan al zen ETaren terrorismoa. Hark zera erantzun zuen: “Ene, zelako galdera, ez?” Eta onena aurrera begiratzea zela gehitu zuen. Glencree-ko proiektuan parte hartu zuten biktimek manifestu bat sinatu zuten 2012an, eurak biktima bilakatu zituen indarkeria-mota oro bidegabekia zela adieraziz. Gauza bidegabe oro da okerra. Han, ETaren, GALen eta poliziaren biktimak zeuden. Horixe da bidea.



Mari Carmen
Dendaria

Gauza informatiboak helarazteko baldin bada bakoitzak nahi duena idatzi dezala. Iraindu gabe baldin bada ez dut arazorik ikusten. Aukera askotara irekia nago. Nik sare sozialak erabiltzen ditut, facebook eta baita twitter ere, baina ez naiz kontu politikoetan sartzen.



Justo
Informatikaria

Muga non dagoen eta nork markatzen duen jakitean dago koska. Adierazpen askatasuna egon badago, baina askatasun hori lege eta arauen bidez moz-tua izatea ekidin beharko litzateke. Baina jende gehienak ez ditugu sare sozialak gure ideiak adierazteko erabiltzen, garrantzi gutxiago duten gauzetarako baizik: laguntzako, argazkietarako...



_GALDERA

Sare sozialetan adierazpen askatasuna mugatu beharko litzateke?

Proposatuzuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita.

 **BIDEOA WEB-GUNEAN**



Andoni
Ikaslea

Ez dut uste sare sozialen gaineko kontrol handiegirik egon beharko litzatekeenik, eta politikoki are gutxiago. Orain twitterren kontuarekin egurra sartzen ari dira jendeak bertatik gauza asko konpartitzen dituelako eta horregatik beldurra sartu zaie-lako.



Garazi
Ikaslea

Adierazpen askatasunaren mugak neurtzea oso zaila da. Nik uste dut internet berez leku librea dela. Nik mugak jarriko nituzke, baina maila pertsonalean. Adierazpen askatasuna egon beharko litzateke, baina beti errespetuz. Baina hori zehaztea oso zaila da, pertsona bakoitzak pertzepzio ezberdinak izan ditzakeelako.

_gutunak

Gure esku dagoelako

Patri Aldama (Gure Esku dago dinamika)

Nazioa garelako, erabakitzeke eskubidea gurea delako eta, azkenik, gu herritarren garaia delako, Ekainaren 8an Durango Iruñarekin lotuko duen giza katearen inguruko guztiak ari gara lantzen. Sekulako indarra eta itxaropena senti daiteke jendearengan, gure inguruko poza eta ilusioa bultzatzaile onena delarik, adin guztiak, eremu anitzak eta jatorri ezberdinak izanda, guztion helburu eta gurariak bat egiten gaitu, batzen gaitu. Erabakitzeke eskubidearen errespetua demokratia baten oinarrietan egon beharko lukeen termometroa da, Quebec eta Eskozia kasu. Hau dela eta datorren igandean Ataun aldera joko dugu erabakitzeke eskubidearen aldeko giza kate honetan parte hartzera. Lizarrusti mendikateak mugatzen ditu aiaraldearrei dagozkigun hiru kilometroak, bazter natural paregabekia gure herriko Historiaren pasarte honen protagonista izateko. Gure arbaso trikuharri-eraikitzaileen eta Aita Barandiaranen urratsak jarraituko ditugu oraingoan, iragana eta etorkizuna batuz hurrengo esaldia egia bihurtu dadin: “Izan zirelako gara, garelako izango dira”.

Ez ditugu nahi, ez ditugu behar

Sonia Täär (Laudioko Alde Hemendik mugimendua)

Edozein lekutan topatu daitezke: errepide baten ertzean kotxeak gelditzen zein geltoki baten sarreran nahi duten herritar orori identifikazioa eskatu eta galdeketa ilegalak egiten. Hala da: Guardia Zibilaren eta Polizia Nazionalaren presentzia nabarmena da Euskal Herrian, eta baita Aiaraldean ere. Audio erdian dugun koartela da horren adibide: bi ikastetxe publikoren alboan dagoen instalazio militarra. Baina, zoritxarrez, Guardia Zibilaren eta Polizia Nazionalaren jasarpina ohiko errepide kontroletatik haratago doa. Hor ditugu tortura kasuak: 1979tik hona 50 aiaraldear baino gehiago torturatu dituzte. Eta Euskal Herri mailara salto egiten badugu zifrek bortizki egoiten dute gora: 10.000 tortura kasu azken 50 urtetan. Erahilketa kopuruak ere ez dira baxuak: 119 Guardia Zibilak, 82 Polizia Nazionalak. Bi indar polizial horien presentziak, gainera, bestelako kostu batzuk ere badakartza, kostu ekonomikoa tartean. Barne Ministerioaren beraren datuen arabera, 2012 urtean 500 milioi euroko kostua ekarri zuen Guardia Zibila eta Polizia Nazionala hemen egoteak. Murrizketak egin behar direla esaten diguten garaiotan, argi dago non sartu beharko litzatekeen guraizea. Ez ditugulako nahi, ezta behar ere.

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Erredakzioa:
Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.com
agenda@aiaraldea.com
agurrak@aiaraldea.com
harremanak@aiaraldea.com
Publizitatea:
publizitatea@aiaraldea.com
Tlfnoa: 669 83 57 87
Web-gunea:
www.aiaraldea.com
Helbideak:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Audio. Araba. 01400 // Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470.
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54
Tel: 945 06 66 84
Tel: 688 848 152

OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.


Egunkari hau ekonomikoki laguntzen duten enpresak:



Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com



CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g - 01468 Amurrio, Araba.
Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com



JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g - 01400 Laudio (Araba)
Tel.: 946 721 200
Fax: 946 720 092
infor@jez.es

_herriz herri

Aiaraldea

Gorostiaga eta Murga askatzeko eskatu dute Aiaraldeko alkateek



Ezkerretik hasita: Tato, Artetxe, San Pedro, Urkixo, Irabien, Egia, Duoandikoetxea, Arranz eta Llano. Irudia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | | Aitor Aspuru Saez

Eskualdeko alkate guztiek -Karlos Arranz, Agurtzane Llano, Josu San Pedro, Josune Irabien, Victor Egia, Itziar Duoandikoetxea, Josu Artetxe, Sergio Tato eta Natxo Urkixo-, prentsaurrekoa eskaini zuten Pablo Gorostiaga eta Patxo Murga preso laudioarren askatasuna aldarrikatzeko.

Natxo Urkixo Laudioako alkateak testuaren bitartez gogoratu du Pablo Gorostiaga eta Patxo Murga *Egin* egunkaria babestu eta bultzatzeagatik daudela kartzelan. Jarduera politikoa hutsa egiteagatik espetxeratu dituztela salatzen, eta aipatu zuten Patxi Lopez edo Juan Jose Ibarretxe lehendakariak ere bere jarduera politikoa dela eta legeari aurre egin ziotela. 18/98 makrosumarioan izan ziren kondenatuak bi presoak.

Aldi berean, alkateak azpimarratu zuten Pablo Gorostiaga eta Patxo Murga presoek 70 urte baino gehiago dituztela eta legez kalean egon beharko liratekeela. "2014ko azaroaren 21ean Pablo Gorostiagak 73 urte egingo ditu. Patxo Murgak aurtengo uztailaren 11n beteiko ditu. Kartzeletan presoaldiak arautzen dituen Espainiako espetxe-legeriak 70 urte bete dituzten presoek 92. artikulua aplikatu dakie, horren ondorioz, gaixotasun sendaezina edo zigorraren hiru laurdenak beterik dituzten presoek egoera berdina izatera pasatu beharko lukete" esan zuen Urkixok. Presoek eskatu dute neurri hori hartzea eta oraindik espetxe arduradunek ez diete erantzun. Alkateek pertsona edo ondasunen aurkakako kalteak eragingabe zigor luzeak ezartzea eta kartzela

latzea neurritz gainezkatatzen zuten. Bukatzeko gehitu zuten preso horien askatasuna eskatzeko antolatzen diren ekimenekin bat egingo dutela, eta senideei elkartasuna adierazi diete.

Murgaren anaia ere kartzelan

Pablo Gorostiaga eta Patxo Murga askatzeko aldarrikapenak ibilbidetara eraman dituzte. Hain zuzen ere, kartzelatik kanpo, 3500 sinadura baino gehiago biltzea lortu zuten. Aurtengo martxoaren 19an Leopoldo Barañano abokatuak eta bi presoek senideek

euren askatasuna eskatu zuten Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herri-tarren Partaidetzaren batzordean. Egun, Mansillako (Leon) kartzelan dago preso Murga (Laudiotik 366 kilometrorara), bere anaia Isidroekin, bera ere makrosumario berean epaitu eta kondenatua. Gorostiaga, berriz, Herrera de la Manchan dago preso, Laudiotik 600 kilometrorara.

***info: bideoa**
Alkateen prentsaurrekoa bere osotasunean.



Pablo Gorostiaga

Egin egunkariako administrazio kontseiluko kide izateagatik kondenatua


NOIZTIK KARTZELAN:

1998an atxilotu zuten lehen aldiz eta hiru hilabete igaro zituen kartzelan. Ondoren, 2007an, espetxe zigorrera kondenatua izan zen.

NON: Herrera de la Manchan (Laudiotik 600 kilometrorara)

ADINA: 72 urte.

IRTEERA DATA: 2015ko udaberria



Patxo Murga

Egin egunkariako administrazio kontseiluko kide izateagatik kondenatua.

NOIZTIK KARTZELAN:

1998an atxilotu zuten lehen aldiz eta bost hilabete igaro zituen kartzelan. Ondoren, 2007an, espetxe zigorrera kondenatua izan zen.

NON: Mansilla (Leon) (Laudiotik 366 kilometrorara)

ADINA: 72 urte

IRTEERA DATA: 2015ko udan



ESTI GOROSTIAGA:
"Kondena oso-osorik betetzeko bidean daude Pablo eta Patxo"

ESTI GOROSTIAGA (Laudio, 1968) Pablo Gorostiagaren alaba da.

Nola jaso duzue senideek alkateen mezua?

Niri atsegina suertatu zitzaidan, eskertzekoa da jendearen elkartasuna jasotzen denean. Eta salaketabate egiteko modukoa ere badela, Pablo eta Patxoren egoera, kondena oso-osorik betetzeko bidean daudelako legediaren arabera aske egon beharko luketen arren.

Eta Pablok nola jaso du albistea?

Egun hauetan oraindik ez dugu berarekin hitz egingai honetaz, baina gutun bat bidali diogu albistearekin.

Nola bizi izan duzue senideek Pablo eta Patxoren kartzelaldia?

Niretzat amesgaizto bat bezalako izan da. Surrealista izan da. Hasiarik egon gara pentsatzen ez zela bukaerara arte luzatuko, eskubide guztien kontra doalako delituri egin gabe espetxeratua izatea. Hori guztia ahaztu gabe komunikabide bat (*Egin*) itxi zutela zigorgabetasun osoz. Gainera, espetxeratzearen krudelkeriaz gain, aitaren adina eta dispertsioak eragiten duen urruntasunak egoera are eta gehiago gordindu egin digu. Horretaz gain, izugarri bota dugu faltan momentu askotan familian.

Nola dago Pablo? Nola ari da bizitzen kartzelaldia?

Ondo dago, indartsu jarraitzen du. Berarekin dauden kideen berotasuna eta sostengua baliagarria suertatzen zaio, eta baita herri-tik jasotzen duen elkartasun eta maitasuna izugarri eskertzen du.

Jakin badaki ezin duela ezer espero agintari hauengatik. Duintasunez aurrera jarraitzeko asmoarekin dago, beti bezala.

Europar Hauteskundeak: EAJ garaile, EH Bildu gora

ERREDAKZIOA |

Igaro dira aurtengo Europar Hauteskundeak, zifraz irimola erraldoia atzean utzita. Espainiar Estatuan parte-hartzea %45.84koa izan da. Aiaraldean, baina, ez da bataz besteko horretara iritsi, %45.42koa izan baita. 2009ko hauteskundeetako igoera bat eman da, dena den, boza eman zezaketen aiaraldearren %43.07ak bozkatu baitzuen urte horretan. Boto nuluedo zurien presentzia, berriz, anekdotikoa izan da aurtengo (%1.1 guztira).

Gauzak horrela, Aiaraldean EAJ izan da alderdirik bozkatuena. 4798 boz eskuratu dituzte jeltzaleek (%30.93). Herri gehienetan izan da EAJ alderdirik bozkatuena, Laudion, Arrankudiagan eta Okondon izan ezik (EH Bildu gailendu baita). Hala ere, 2009an baino 927 boz gutxiago lortu dituzte jeltzaleek.

Bildu, berriz, gertutik jarraitu du EAJ, 4444 bozekin. 2009ko hauteskundeetan Ezker Abertzaleak Iniziatiba Internazionalistarentzat eskatu zuen boza, eta EA eta Aralar koalizioan aurkeztu ziren ERC, BNG eta CHAekin. Bi taldeen artean 3606 boz lortu zituzten. Hori kontuan izanda, EH Bilduk 838 boz gehiago lortu ditu 2009an baino. Podemos alderdi sortu berria, bere aldetik, bostgarren talderik bozkatuena izanda eskualdean, 1026 boto erekin (%6.62).

PP eta PSOEren emaitzak, baina, jaitsi egin dira. PPK 861 boz gutxiago jaso ditu aurtengo; 1209 jaso ditu guztira (%7.79). PSOE, estatu mailan jasan duen jaitsierari jarraiki, boz gehien galdu dituen alderdia izan da Aiaraldean. Orotara 1468 boz galdu ditu, baina PPren gainetik geratu da, bozen %9.79arekin.

Alderdi txikien gorakada

Baina proportzionalki gorakadarik handiena izan duen alderdia UPyD izan da. 2009an 92 boz soilik jasotzetik aurtengo 641 jasotzera igaro da (%4.13).

Ordezkaritza txikia duten alderdiei bozkatzeko joera ere nabarmenki handitu da: 2009an 244 aiaraldearren baimo ez zioten halarako alderdi txiki boza eman. Aurtengo, berriz, 1130 herritarrek egin dute hautu hori (bozkatu dutenen %7.2a).

Santiago Abascal Conde amurriarrak PPtik alde egitean sortutako VOX alderdi berriak, berriz, 78 bozka baino ez ditu lortu, gehienak (37) Amurrion bertan.

_herriz herri

Orozko

Zubiaur eraikuntzak: adreiluaren gorakadatik sozietatearen likidaziora

Zubiaur Eraikuntzak sozietate publikoa likidatzearen erabakia hartuta, likidazio horren ondorioak ikusteke daude. 4.6 milioi euroko zorra dauka sozietateak.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado

Iragan maiatzaren 5ean zeresan handiko erabakia hartu zuen Orozko Udalak: Zubiaur Eraikuntzak sozietate publikoa likidatzea. Udal promotorearen ibilbidea amaitzea "agintaldiko erabakirik garrantzitsuena" izan da, Josu San Pedro alkatearen hitzetan. Baina alkatearen udal-taldea, Adie plataforma, izan zen likidazioaren alde bozkatu zuen bakarra, EAJ eta Bildu abstenu egin baitziren. Likidazioaren erabakia hartuta ADIEk "bere interes politikoak herriaren interesen gainetik" jarrituela salatu zuen EAJk. Zubiaur Eraikuntzak SA sozietatea 1993an sortu zen, eta 1995etik 2004ra 247 etxebizitza eraiki zituen, Adiek helarazitako datuen arabera.

Hegoaldeko urbanizazioa

2004an sozietateak proiektu berri bat jarri zuen martxan: Hegoalde auzoko lur-sail batzuetan kokatutako urbanizazioaren eraikitzea. 110 etxebizitza egitea zen asmoa, hiru fasetan banaturik.

Proiektu horrek, baina, bazuen zerbait ezberdina: ordura arte eraikitako etxebizitza gehienak babes ofizialekoak ziren bitartean, Hegoaldeko urbanizaziokoak udal etxebizitza tasatuak izango ziren. Ezberdintasuna, plataformaren hitzetan, honakoa da: udal etxebizitzek, babes ofizialeko etxebizitzek ez bezala, ez dute lur-sailaren prezioaren araberako gehieneko salneurririk. Bilduk, berriz, azaldu du Hegoaldeko urbanizazioan ez zirela babes ofizialeko etxebizitzak egin Eusko Jaurilaritzak horretarako finantziazioa eman ez zuelako.

Hegoaldeko urbanizazioaren lehen fasea 2012an bukatu zen: 54 etxebizitza jarri ziren salmentan. Etxebizitza horiek, baina, aurreroko urteetan eraikitakoak baino "nahiko garestiagoak" ziren, Adieren hitzetan, "herriko beste etxebizitza pribatu batzuk baino prezio altuagoa izateraino". Hegoaldeko lurzorua prezioan kokatu du plataformak garestitze horren gako.

Bilduk, bere aldetik, "boom urbanistikoa testuinguruan" kokatu du garestitzea. Prezioaren garestitzeak etxebizitzak saltzeko zailta-

sunak ekarri zituen. Hala, eraiki ziren 54 etxebizitzetatik 9 saldu gabe geratu ziren, eta horrela jarraitzen dute gaur egun.

Hegoaldeko urbanizazioaren blokeoa ez da izan likidazioa bultzatu zuen faktore bakarra. Iazko uztailan sozietatearen administrazio kontseiluko Adieren ordezkariak dimittitu egin zuten, oposizioak 2012ko kontuen onarpena eta plataformak Hegoaldeko urbanizazioaren arazoari jarritako soluzioak blokeatu zituela argudiatuta. ADIEren Adieko ordezkariak gabe ere kontseiluak funtzionatu zezakeen, EAJko bi kide eta Bilduko bat egonda kopuru minimora iristen zirelako.

2014an, baina, Juan Antonio Olaguenaga EAJren ordezkariak kontseilua utzi behar izan zuen, ADIEk epaitegian jarritako salaketa bat medio. Orozkoren fiskalizazio txostenean Olaguenaga alkate eta kontseiluko presidente zenean dieta kontzeptuan hilero 1030 euro irabazten zituela azaltzen zen, dieta finkorik jarri ezin denean. Hori dela eta egin zuen ADIEk salaketa.

Sozietatea bi ordezkariarekin geratu zen orduan eta jada ezin zen kudeatu. Gauzak hala, Adie-ren gobernu taldeak sozietatea likidatzeko erabakia jarri zuen mahaigaiarean.

Ondorioak

Sozietateak dituen zorrek paper garrantzitsua jokatu du likidazio prozesuan. Bi zor ditu Zubiaur Eraikuntzakek: 2.9 milioi euroko bat Kutxabankekin eta 1.648.000 eurokoa Udalarekin. Likidazioa eginda zor horiek kitatzen ez badira udalak bere gain hartu beharko ditu.

Horretaz gain, Haur Eskolaren, Gaztelekuaren eta udal obren brigadaren eraikinak sozietatearenak izanik, euren etorkizuna kolokan dago baita. ADIEk adierazi du Likidazio Txostenak dioena ikustera itxaron beharko dela, baina Bilduk uste du "merkealdietan" bezala likidatu ko direla. EAJk ere etorkizun iluna iragarri zuen likidazioa zela eta idatzi zuen prentsa oharrean. Likidazioak "herria hipotekatuko" duela zioten jeltzaleek oharrean.



Bederatzi etxebizitza geratu dira saltzeko Hegoaldeko urbanizazioan Argazkia: aiaraldea.com

_ikuspuntuak



Josu Sanpedro

Orozko Alkatea (ADIE)



EAJ Orozko

Prentsa oharraren zatiak



Patxi Mimenza Moya

Orozko Bildu

"Sozietatea likidatzea beste aukerarik ez dugu ikusten, Orozko ahalik eta gutxien kaltetu dezan"

Hegoaldeko etxebizitza-promozioa egiterakoan Zubiaur Eraikuntzak-en filosofia aldatu egin zen, 2.500.000 €ko etekina ateratzeko asmoz. Zerrendan 300 erosle baino gehiago zeudenez, pisuen prezioa %18 igo zuten, horrela, Orozko pisu libre asko baino garestiagoak ziren.

Ondorioz, 45 pisu baino ez dasaldu, baina sozietateak 110 eraikitze ko kreditua eskatu zion bankuari eta orain ez du dirurik zorra kitatzeko. Adiskidekeria eta irregular-tasunak handitzen ziren heinean, Udalak 19 milioi eurogaz abalatu zuen promozioa, beraz, herri osoak ordaindu behar du EAJren espekulazio grina.

Hori ekiditeko, ADIEn pisuen prezioak merkatzen eta gastuak gutxitzen ahalegindu gara, baina alderdi politikoek aldaketarako edozein proposamen blokeatu egin dute. Orain Sozietatea likidatzea beste irtenbiderik ez dugu ikusten, Orozko ahalik eta gutxien kalte dezan.

"Hurrengo urteetan zehar ezin izango da Orozkon inbertsio berririk egin"

Udala Zubiaur Eraikuntzak erakundeko akziodun bakarra dela kontuan harturik, gobernu taldearen erantzukizuna da sozietate publiko horren kudeaketa lana burutzea. (...)

2013ko irailean oposizioko taldeek Adie-ri batzordekide berriak izendatzeko eskatu zituen sozietatea kudeatzeko aukera egon zedin. Baina, berriz ere, plataformak uko egin zion ardura bere gain hartzeari, bere interes politikoak herriaren interesen gainetik jarri zituelarik (...)

Herritar guztiek daukate gertatu dena ezagutzeko aukera. Eskubide osoa dute jakiteko Adie beste erakundeengana laguntasun eske joan dela berari dago-kion erantzukizuna alde batera uzteko. (...)

Herritarrei esan behar zaie zorraren igoera honek Udala hipotekatuta utziko duela. Hurrengo urteotan ezin izango da Orozko herrian inbertsio berririk egin.

"Sozietatearen auzia EAJko familien arteko gerra baten gako dela uste dugu"

Gaur egungo egoeraren jatorria EAJk duen adreiluaren kulturantatza, jeltzaleek legegintzaldi honetara arte izan duten hegemonia baliatuta erabili izan dutena. Obskurantismoa eta herriko gainontzeko indarrekiko mespretxua euren identitate-ikur bilakatu dituzte horrela. ADIEk, zoritzarrez, kontinuis-moaren aldeko apustua egin zuen.


Sozietatearen auzia EAJko familien arteko interes gerra baten gako dela uste dugu. ADIEk likidazi-raino eramane duen gerra bat. Kontseiluan dugun ordezkari bakarrak ez die bere ardurei muzin egin eta hainbat aldiz egin du kontsentsua-ren aldeko deia. ADIEk ez dakizkiho-nek herrian izango dituen ondorio ekonomikoak, funtsezko ezer ezku-tatzen ez duela suposatuz.

Nori egingo dio mesede? Gaur egun dauden zerbitzuak mantendu ahaliko dira? Gaztetxokoa, Haur Eskola, brigadaren eraikina... esku pribatu etara joango dira? Zer pre-ziotan?

_herriz herri

Amurrio

San Anton plaza estaltzeko proiektua aukeratu dute jada



Alde batera da aukeratutako proiektuaren izena. Argazkia: Amurrioko Udalak

ERREDAKZIOA | Irati Maraño

Amurrioko Udalak prentsa-ohar bidez adierazi du "San Anton Plaza-ko Estalkia" lehiaketako epaimahai kalifikatzaileak aukeratu duela jada zein proposamen izan den garailea. Proposamenari *Alde batera* deritzo, eta egileak bi hilabete izango ditu orain eraikuntza-proiektua idazteko. Gauzak ondo bidean, beraz, proiektua eta pleguak uztaile-rako onartuko ditu Udalak, obrak lehenbailehen esleitu ahal izateko. Hala, bada, eraikuntza-lanak azaroan hasia eta datorren urteko maiatzera amaitzea espero dute udal-ordezkariek.

Alde batera proposamenean jasotakoaren arabera, oraingo estalkia eraitsi egingo da. Haren or-

dez jarriko den estalkiaren kanpoko azala polikarbonatu zeharrargikoa (transluzidoa) izango da, eta Amurrio inguruko pinu-zuraz egindako xaflez osatua egongo da.

Hasiera batean 65 proiektu aurkeztu ziren Udalak deitutako ideia-lehiaketara. Gero, apirilaren 14an, epaimahaiak horietatik bost aukeratu zituen, eta, herritarrek, hain zuzen, bost horietatik gustukoena zutena zein zen adierazteko aukera izan dute maiatzaren zehar.

Azken hitza, dena den, lehiaketako epaimahai kalifikatzaileak izan du. Izan ere, *Alde batera* ez da izan herritarren proiekturik gustukoa, baina azkenean hura izan da garailea, epaimahaiak hala erabakita..

Okondo

Okondo Euskaraz-en edizio berria

ERREDAKZIOA | Angela Rico

Ekainaren 11tik 15era bitartean Okondoko kaleak euskaraz jantzi-ko dira. Izan ere, asteazkenetik aurrera, eta "Okondo euskaraz 2014" lelopean, hainbat jarduera eta ekitaldi egongo dira euskara bultzatu eta kalera eramateko asmoz. Egitaraua Okondoko Udalak hainbat elkarte euskaltzaleekin batera prestatu du. Ekainaren 11n, asteazkena, hitzaldia egongo da 19:30ean Okondogoieneko Kultura Etxean, Okondoko euskarari buruzkoa.

Hurrengo ostiralean, ekainak 13, umeentzako puzgarriak egongo

dira arratsaldean, eta trikipotea eta kantu-afaria egongo dira gero. Hurrengo egunean, larunbatean, mendi irteera familiarra etagidatua egongo da Aretxarrora, eta arratsalde partean euskal dantzak ikusteko aukera egongo da. Txorizo janarekin eta Oliver magoaren emanaldiarekin emango zaio bukaera egunari. Igandean, berriz, Araba Euskaraz festara joateko busa antolatuko dute, 9:30ean Batzoki eta Txaparrotik aterako dena. Joateko, ekainaren 12a baino lehen eman behar da izena, udalean.

Artziniega

Arabako Adinekoen Lehen Topaketa Artziniegan

ERREDAKZIOA | Unai Gotxi Kastrexana

Datorren larunbatean, ekainak 7, Arabako Adineko Pertsonen I. Topaketa ospatuko da Artziniegan. Bertoko jubilatuek taldeak gonbidatuta, lurralde osoko 300 lagun herrira hurbiltzea espero da.

Ekimena Artziniegako jubilatuek egiten zizutuzten txangoen harira jaio zen, Alejandro Parro Villate bertako jubilatuen elkarteak zuzendariak azaldu duenez: Haiek beste herri batzuetara doazen bezala, Arabako adinekoak bertara erakartzeko asmoarekin jaio zen. Beraz, lurral-

deko gainontzeko herrietako elkar-teeink kontaktuan jarri zirenetan hurrengo larunbata, ekainak 7, adostu zuten Arabako adinekoen topaketen abiapuntua finkatzeko. Hala, hurrengo urtean Agurainen egiteko asmoa dagoela adierazi du Parrok. Herria eta herriko hiru museoak ikusteko aukera izango dute nagusiek. Eguerdiko 12.30ean esku-pilotako partidak ikusi dute, meza izango dute gero eta bazkaria ostean. Bazkaldu ostean musika izango dute 19:00etara arte.

Laudio

Auzolana deitu dute Lamuza Parkea berritzeko

SOS Laudioko Lamuza Parkea plataformak auzolana deitu du parkeko itxura hobetzeko. Larunbatean, ekainaren 7an, izango da eta 10:00etan da hitzordua.

Lan errazak egingo diren arren -sastrakak kendu, iturriak garbitu, garbiketa...- aseguruak kontratatuko du Laudioko Udalak eta horregatik boluntarioek izena eta NAN zenbakia eman behar dute lamuza@sosparkea.com helbidean. 13:00etan lan egiteari utziko diote eta picnic-a egingo dute.

LAUDIOKO GARAGARDOAREN FESTA!!

OKTOBERFEST GIROA !! | EKAINAK | 6-7-8 | 13-14-15 | ALDAI PLAZAN

OSTIRALA - EKAINAK 6
18:30 Inaugurazio-brindisa
19:00 Jendeari irekitzea eta Kun Kun Batukada Taldearekin animazioa
Karpan Oktoberfest giropena eta musika
24:00 KELTU SOINUA: DJ KELMEN - DJ CHRISTIAN M

LARUNBATA - EKAINAK 7
13:30 Munduko garagardo-dastatzea azalduta eta alemaniar menua.
Inskripzioa: Junifest-aren tabernetan
19:00 Jendeari irekitzea - Oktoberfest giropena eta musika
24:00 ZADORS (GASTEIZ) kontzertua
01:30 KELTU SOINUA: DJ KELMEN - DJ CHRISTIAN M

IGANDEA - EKAINAK 8
12:00 Dantzaldia
12:30 STREET BIKERS motorren erakusketa
15:00 Festa esparruaren itxiera

GARAGARDORIK ONENA ETA JANARI ALEMANIAR ZORAGARRIA !!

MUSIKA ZUZENEAN: ZADORS

GARAGARDO DASTATZEAK! APUNTA ZAITEZ LAUDIOKO TABERNETAN!

MUSIKA ZUZENEAN: PLANCTON

OSTIRALA - EKAINAK 13
19:00 Jendeari irekitzea - Oktoberfest giropena eta musika
24:00 KELTU SOINUA: DJ KELMEN - DJ CHRISTIAN M

LARUNBATA - EKAINAK 14
13:30 Euskaldun garagardo-dastatzea azalduta eta alemaniar menua.
Inskripzioa: Junifest-aren tabernetan
19:00 Jendeari irekitzea - Oktoberfest giropena eta musika
24:00 PLANCTON taldearekin bertsioak
01:30 KELTU SOINUA: DJ KELMEN - DJ CHRISTIAN M

IGANDEA - EKAINAK 15
12:00 Dantzaldia
15:00 Festa esparruaren itxiera

LAUDIO
COMERCIO Y OCIO

EUSKO JAURLARITZA
ECONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAGOTZAILUEN SAIA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONOMICO Y COMPETITIVIDAD

LAUDIO
LLODIO

_sozioekonomia



Raul
Arza
UGT

_Argia

*Ekonomia
pertsonen zerbitzura*

Errealitateak, egunez egun, gezurtatu egiten ditu ekonomiaren gu-ruak: Nazioarteko Moneta Funtsa, Europako Banku Zentralak eta Troiak huts egiten dute berriz gure ekonomiaren diagnostikoan eta ezartzen dizkiguten errezetetan; langile, eta oro har hiritarren aurka jotzen duten errezetak.

Zifra makroekonomiko bartzuen errekupeazio iragarri arren, errekupeazio hori ez da pertsonengana iristen. INEk argitaratu zuen Bizi Baldintzen Inkestak egiaztatzen du pobrezia edo jendarte bazterketa arrisku tasa biztanleriaren %27.3an kokatzen dela. Neurri handi batean austeritate eta murrizketetan oinarritutako politika ekonomikoaren ondorio den pobrezia bat.

Horregatik, beharrezkoa da, gaurtik, politika egiteko modu honen norabidea aldatzea eta pertsonen beharrianak lehenestea, eskubidedun enplegu duin batetik hasita. Sakrifizioen banaketa orekatuago baten aldeko apustua egiteko ordua da, eredu ekonomiko sostengarriago eta lehiakorrago bat defendatzen duen ekoizpen eredu baten alde apustua egiteko unea, erreforma fiskal juxtuago eta bizidetzekoago baten alde apustu egiteko unea, zeinetan iruzurrarekiko tolerantziarik egongo ez den eta zeinetan gehien duenak gehien zerga gehiago ordainduko dituen. Gure ongizate estatuaren mantenuaren alde apustu egiteko unea da. Bada garaia egoera aldatzeko eta ekonomia pertsonen zerbitzura jartzeko.

Tubacexek 15 milioieuroko zor-agirien bi emisio atera ditu merkatura

Tubacex enpresak 15 milioi euroko bi zor-agiriren emisioa atera du merkatura. Emisioetako bat sei hilabetera ordaindu beharrekoa da eta 3 milioi eurotan baloratua dago, %2.36ko interesekin. Bigarrena 12 milioi eurotakoa da, 12 hilabetetan ordaindu beharrekoa, %2.85ko interesekin.

Lanuzteak Orozko Artiach-en, "lan baldintza onartezinen" aurka

Orozkon kokatuta dagoen Artiachen enpresan lanuzteak antolatu dituzte asteazkenero txanda guztietan. 2013an Nutrexpak Artiacherosi zuen eta lan baldintza berri "onartezinak" proposatu zituen, langileen esanetan: soldataren %26ko jaitsiera, 17 egun gehiago lan egitea urtean.



Giza baliabidetarako plan estrategikoa onartu dute Laudioko Udalean

Osoko Bilkurak giza baliabidetarako plan estrategikoa onartu da PP eta Bilduren bozekin. Iñigo Martinez zinegotziak argudiatu du horrela Udalak lanpostuen balorazioa izango duela eta honen bitartez irizpide objektiboak ezarriko direla langileen eskubideak eta betebeharrak finkatzeko.

ABELTZAINTZA

"Automatizaziorik gabe ezinezkoa izango litzateke halako ekoizpen bat aurrera eramatea"

Oilobide proiektuan murgilduak daude Aitziber Saez eta Ainhoa Alava (Urduña, 1972). Bi nabe, 6000 oilo eta eguneko 5000-5100 arrautza ekologikoz osatutako ekoizpena. Euskal Herri osoan banatzen dute ekoiztutakoa.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Nola ekin zenioten Oilobide proiektua eratzeari?

Alava: Granja batekin hasi ginen, nirearekin, Lendoñogoitin dagoena. Ondo ibili izan ginen funtzionatzen, harik eta konturatu ginen arte 15-30 eguneko osasun-hutsaldi bat gurea, zeinetan dendei eta kontsumo-taldeei zerbitzatzen jarraitu behar genuen baina zeinetan arrautsik ez geneukan. Eta horrela txikitatik nire laguna izan den Aitziberrekin hitz egin nuen bigarren nabea ireki zezan.

Modu horretan, nabeetako bat osasun-hutsaldian egonda besteak egingo luke egin beharreko lana. Hala, arrautzak urte osoan zehar izango genituzke eta ez genuke bezeroei zerbitzatzen utzi beharko.

Dituzuen instalazioen zati handi bat automatizaturik dago. Nola funtzionatzen du?

Alava: Instalazioen barruan oiloak aske daude, ez daude kaiolen barruan sartuta. Janaria, ura eta aireztapena automatizatuta daude. Kanpoko tenperatura igotzen bada, adibidez, instalazioa aireztatu egiten da automatikoki, oiloak ongizate batean egon daitezten. Arrautzak zinta automatiko baten bidez jasotzen ditugu baita, eta tamainaren arabera sailkatzen dira gero.

Automatizazio horrek lan munda eta bizitza pertsonala uztartzea ahalbidetzen du?



Saez: Nik nahiko ongi daramat bien arteko uztarketa. Denbora daukazu, baina astelehenetik igandera egon behar duzu hor. Familiarekin igande batean txangobat egin nahi baduzu gure artean lagundu behar gara. Automatizazioak lan asko kendu digu. Inbertsioa indartzea izanda, baina ez dugue esfortzu fisiko izugarriarik egin behar.

Alava: Automatizaziorik gabe ezinezkoa izango litzateke halako ekoizpen bat aurrera eramatea.

Arrautzak ekoizten dituen industria handi baten aurrean, zer da ekoizpen ekologiko batek eskaintzen duena?

Alava: Industria-ekoizpena, hasiteko, ez da ekologikoa. Kaiolan hazitako oiloen arrautzak dira. Kalitateaz gain, guk bezeroarekiko dugun tratua ere badago, ekoizle-kontsumitzaile tratua.

Zaila da halako industriekin lehiatzea?

Alava: Gure arrautzak denda ekologikoetan eta elikadura ekologikoarekin oso kontzientziatuak daude ekoizleen artean banatzen ditugu. Ez dago arazorik, beraz; erosleek beraiek eskatzen ari diren produktu bat eskaintzen ari zarelako.

Eta Aiaraldea mailan nola ikusten duzue?

Saez: Donostia edo Bilbo batean bai erosleak egon daitezke. Baina hemen ez. Hirikoa den jendeak

"Erreleboa izatea espero dugu, ez da lehen zegoen lan egiteko modua. Baserrian milaka ordu sartu behar ziren, baina gauzak modernizatzen doaz"

gehiago erosten dizu. Baina herrietan ez. Aurrekoan Mungian egon ginen eta ezinezkoa egin zitzaigun, bertan jende guztiak landa arrautzak zituelako.

Eta merkatuari begira zeintzuk dira dituzuen oztoporik nabarmenenak?

Saez: Prezioa. Arrautza ekologikoak izanda garestiagoak dira. Garestiak dira eta jendeak gutxiago erosten du. Menu bereziak ditzuten jate-txeek bai erosten

dute, baina hemen, Urduñan, adibidez, ez die konpentsatzen.

Eta instituzioek gehiago lagundu beharko luketela uste duzue?

Alava: Guezagaraketako. Emakumeak eta 40 urte baino gutxiagokoak izateagatik laguntza nahikotxo jaso ditugu. Laguntza horiek gabe ez ginatekeen proiektu honetan sartuko. Ezinezkoa egingo litzazuke.

Eta merkatua zabaltzeari begira erronkarik duzue buruan?

Saez: Arrautzak hartu eta jendeari eskaintzean dago koska. Tabernaz taberna, dendaz denda... gure buruak aurkeztu, eta zortea izan.

Belaunaldi aldaketa bermatua dago halako lan batean?

Alava: Erreleboa izatea espero dugu. Ez da lehen zegoen lan egiteko modua. Baserrietan dena oso gordina zen. Milaka ordu sartu behar ziren.

Baina orain gauzak modernizatzen ari dira.



_jendartea

Selektibitatea: Ikasleek oraindik gainditu beharreko langa

Selektibitatea egiten ari dira egunotan Aiaraldeko dozenaka ikasle. Froga hori egin beharko duen azkenetariko ikasle belaunaldia izango da aurtengoa, 2017an LOMCE legearen bidez beste froga bat ezarriko delako. Aiaraldeko gure hezkuntza plataformako kideek gaur egungo selektibitatearen hainbat aspektu salatu dituzte.

ERREDAKZIOA | Erredakzioa

Asteazkenetik ostiralera arte dozenaka ikasleek erronka garrantzitsua dute esku artean: selektibitatea. Unibertsitate publiko zein pribatuan sartzeko 4 puntuko kalifikazioa lortu behar da gutxienez azterketa horretan, eta ahalik eta nota altuena izatea komeni da, unibertsitateko gradu bakoitzak sarriera-nota bat jarria duelako, ikasketak horiek egin nahi dituzten ikasleek arabera altuagoa edo baxuagoa dena.

Ikasle bakoitzaren nota, baina, ez da Selektibitateko azterketekin soilik zehazten. Nota horren %60a Batxilergoan osatutako notak zehazten du, eta gainontzeko %40a, berriz, selektibitateak. Horretaz gain, ikasleek puntuazio estira bat jasotzeko aukera daukate ikasi dute n batxilergo modalitateko ikasgaiekin lotutako azterketak eginda. Azterketa horiek Selektibitatearen fase orokorrarekin batera egiten ari dira ikasleak.

LOMCEren aldaketak

Selektibitateak, baina, iraungitze data jarria daukajada: 2017an egingo da azkenengo aldiz, LOMCE lege berriak unibertsitate sartzeko azterketen nondik norakoak aldatuko baititu.

Hala salatu dute Aiaraldeko Gure Hezkuntza plataformatik. Plataformako kide den Toño Valle azaldu du urte horretan selektibitatea Batxilergoko Errebalida deritzon proba batekin ordezkatu izango dela.

Errebalida gainditzea derrigorrezkoa izango da Batxilergoko titulua lortzeko, eta "Estatu Espainiarrak ezarriko ditu azterketaren irizpide guztiak", Valle salatu duenez. "Hauxe dela eta, badirudi, bere hizkuntza daukaten erkidegoek ezingo dutela bere hizkuntza ebaluatu azterketa horretan". Baina 1974-1975 ikasturteetik indarrean dagoen Selektibitatea ere "polemiko" izan dela gaineratu du Valle. "Ikastetxeen autonomiaren aurka doa, ikasleak Batxilergoan egindako unibertsitateak ebaluatzen baitu eta ez ikastetxeak.

Horretaz gain, Batxilergoko ikasleek mota horretako probak "inola-ko eskarmenturik gabe" egin behar dituzte, ikastetxeek ikasleek "ebaluazio jarraituaren bidez ebaluatzen dituztelako bi ikasturteetan zehar" plataformako kidearen hitzetan.



Atzo (asteazkena) hasi zen selektibitatea. Argazkia: orientacascales.wordpress.com

Batxilergoa eta selektibitatea, aiaraldear gehienek euskaraz

ERREDAKZIOA |


Aiaraldeko ikasleen gehiengoak euskaraz egiten ditu bai Batxilergoa eta baita Selektibitatea ere. Irudiko grafikoetan 2012-2013 kurtsoko datuak azaltzen dira.

Datu horien arabera, ikasturte horretan 186 aiaraldear matrikulatu ziren euskaraz, eta 71 gaztelaniaz. Selektibitatearen kasuan, baina, igo egiten da selektibitatea euskaraz egiten dutenen proportzioa: 2012-2013 kurtsoan 126 ikasle egin zuten hautaprobea euskaraz (ohiko eta ezohiko deialdietan). Gaztelaniaz, berriz, 31 pertsonen baino ez zuten egin.



Alde nabarmena dago baita Batxilergoan matrikulatzen diren eta gero Selektibitatea egiten duten ikasleen artean. Eskumako grafikoan ikusi daiteke 2012-2013 ikasturtean 257 aiaraldearrek egin zutela Batxilergoko 2. maila, baina horietatik 140ek baino ez zutela gero hautaprobea egin.

Baina ikastetxeek azpimarratu dute horrek ez duela esan nahi gutxiak jaso dutela Selektibitateko aurkezteko formazio nahikoa. Izan ere, badaude Batxilergoaren ostean unibertsitatean baino lanbide

SELEKTIBITEA



BATXILERGOA



la hiru laurdenek euskaraz egiten dute selektibitatea. Argazkia: aiaraldea.com

heziketan sartzeko asmoa duten ikasleak, eta horretarako ez dute hautaprobea egin behar.

Batxilergoaren eboluzioari dagokionez, igoera txiki bat egon dela ikusi daiteke: 2010ean 250 ikasle matrikulatu ziren 2. Batxilergoan. 2012-2013 kurtsoan zazpi pertsona gehiagok egin zuten.

Selektibitateko aurkeztu diren ikasleen kopuruan, berriz, jaitsiera txiki bat egon da: 155 aurkeztu ziren 2009-2010 ikasturtean (lehen deialdian).

Iaz, berriz, 140 aurkeztu ziren. 15 ikasleko jaitsiera hori, baina, ez da oso handia, eta ausazkoa izan daiteke.



Asier

Amondo
AEK

_Argia

Poziktibity

Egunotan Eusko Jaurlaritzak Poziktibity izeneko kanpaina jarri du abian.

Kanpaina honek euskararen erabilera eragitea du helburu eta horretarako nahiko mediatikoak diren Athleticeko eta Realeko jokalariek hartu ditu eredutzat. Biak euskaldunak.

Berez, hau guztia ondo dago, egia da ereduaren falta dugula eta erabilera traba-tuta gaudela. Haiek aipatzen dute kurioa dela umeak hurbiltzea eta autografoak gaztelaraz eskatzea. Horrek badu bere arrazoiak, mediatikoki erdal hitzun moduan agertzen baitira komunikabideetan.

Esan bezala ongi etorriak era honetako kanpainak, kanpaina hauek jendartari zuzendutakoak dira eta jendartea astintzeko balio behar dute.

Ereduak hauek eta beste asko izan daitezke, euskaraz bizi diren herri asko baitaude, batzuk UEMA barruan beste batzuk ez, baina herri hauek ere eredutzat hartu behar ditugu, administrazioek eredu horiek baliatu behar dituzte, apurkanka jendartean eragiteko eta euskararen erabilera arlo guztietara hedatzeko.

Orain uda dator eta aisialdian eragiteko baino ez bada, hiritarrontzat, denontzat eredu izan daitezkeen eskualde euskaldunetatik turismoa egin dezakegu guk eta gure albokoak konturazteko euskaraz ere bizi daitekeela.

Erreportajea

Bielorrusia, Sahara, Errusia eta Ukrainatik, Aiaraldera

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Bi hilabeteko egonaldia egingo dute Sahara, Ukraina, Errusia eta Bielorrusiako haurrek udan zehar Aiaraldeko familiekin. Gehienentzat ez da etortzen diren lehen aldia izango.

Ate joka dabil uda, eta laster aiaraldea asko oporretara joateko planak egiten hasiko dira. Baina badaude euren etxeko ateak itxi baino, parez pare irekiko dituzten familiak ere, udan eskualdera bizitzera etorriko diren umeei harreara egiteko.

Aurten dozenaka dira beste herrialde batzuetatik Aiaraldeko familiekin uda igarotzera etorriko diren umeak. Horietako sei Saharako Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuetatik etorriko dira, Amurrioko Sahara Eutsi elkartearen bidez. Beste hainbat Ukrainatik bertaratuko dira Aiaraldeko familiekin uda igarotzera, Txernobilgo Umeak eta Txernobil elkartearen eskutik. Errusia eta Bielorrusiatik, berriz, 13 ume etorriko direla baieztatu du Bikarte elkarteak.

Etortzeko arrazoiak

Ume horiek guztiak oporretan datoz Aiaraldera. Baina badituzte arrazoiak etortzeko, oporretan egote soilaren gainetik. Erru-

sia eta Bielorrusiatik datozen ume gehienak umezurtz-etxeetatik datoz, Bikarte elkarteak kidea den Belen Carbalhoren arabera. Bere hitzetan, alkoholismoa da Errusiak daukan arazo nagusienetakoa bat, "eta horren lehen biktimak umeak dira, abandonatu egiten dituztela edo gurasoei zaintza-baimena kendu egiten dietelako".

Ukrainako eta Bielorrusia hegoaldeko umeak, berriz, Txernobil 1986an gertatutako istripu nuklearraren ondorioz datoz. Hilabete pare bat kutsatu gabeko lekubatean igarotzeko osasunean onura handia egiten diela azaldu du Txernobilgo Umeak elkarteak kide den Endika Angulok.

Bere hitzetan, umeen sistema immunologikoa oso giro bortizari egin behar dio aurre. "Hemen egoteak defentsak berrindartzeko aukera ematen die, eta bost udajarraian hemen igarotzeko normalizatu egiten zaie sistema immunologikoa".

Ume sahararrek ere hainbat

arrazoi dituzte uda errefuxiatuen kanpalekuetatik kanpo igarotzeko. "Haiman bizi izan dira beti, eta askok ez dute inoiz osasun azterketarik izan", azaldu du Arantza Sadaba Etxebarria Saharako Eutsi elkartearen presidentea. Udan zehar Saharako basamortuan jasaten diren muturreko tenperaturak ere aipatu ditu Sadabak, eta Marokorekin dagoen gatazka politikoa ere hor dago. Hala, umeak euren herriaren ordezkariak bilakatzen dira, Saharako Eutsi presidentearen hitzetan.

Batzuetan, baina, ez da erraza umeak ekartzea. Errusiak 2011n onartutako legea jarri du Carbalhok adibidetzat. "Lege horren arabera, estatuaren menpe dauden umeak eta urtetan zehar gure kanpainetan parte hartu duten haurrak ezin dira Errusiatik atera". Horregatik, azken urtetan Bielorrusiatik ume gehiago ekartzen ari direla erantsi du Bikarte elkarteak.

Ukrainako gatazkak, aldiz, ez du eraginik izan bertako umeen etorreran. Angulok adierazi du ume



Saharako errefuxiatuen kanpalekuetatik sei ume etorriko dira aurtan Aiaraldera. Argazkia: aiaraldea

Haurrak hartzen dituzten familia kopuruak jaitsi egin direla diote elkarteek. Batzuek horren kausa krisi ekonomikoan kokatzen dute. Beste batzuek, berriz, arrazismoan.

horiek herrialdearen iparraldean bizi direla, eta gatazka ekialdean dagoela. Hona etorri ezin duten umeak Ukrainako kutsatu gabeko zonalde batera eramateko egitasmoa da gatazkagatik "zintzilik" dagoena, Txernobilgo Umeak elkarteak kidearen iritziz.

Krisia eta arrazismoa

Aurten ume ugari datoz Aiaraldera, baina duela urte batzuk gehiago etortzen zirela azpimarratu du Sadabak: "eskualdera Saharatik 28 ume ekartzera iritsi gara". Angulo ere bat dator baieztapen horrekin, Txernobilgo Umeak elkartearekin EA Era 108 ume ekartzera iritsi baitira.

Carbalhok, bere aldetik, Laudio ume errusiarren harreraren "zonaldeko aitzindaria" izan zela azpimarratu du, baina gaineratu du umeak hartzen dituzten familia kopuruak jaitsi egin direla bertan, Amurrion igotzen joan diren bitartean. Hala ere, umeak hartzera familia berri gutxi animatzen direla aitortu



mariterra

ETXKO ELIKAGAI EKOLOGIKOAK AMURRION

- Fruitak eta barazkiak
- kontserbak
- Lekaleak
- Esnekiak
- Zekaleak, pastak, arrozak
- Ogia eta arraultzak
- Produktu begetarianoak

- Gozokiak, gailetak, marmeladak
- Olioak
- Haurtxoentzako jakiak
- Edariak: ardoa, txakolina...
- Higiene eta norbera-zaintzeko produktuak
- Eta askoz produktu gehiago



Etxerako aginduak jasotzen ditugu Amurrio, Laudio eta Luiaondon... Besteak kontsultatu

Aiara kalea 6, AMURRIO Tlfnoa: 945 891 750 e-maila: mariterra.amurrio@gmail.com



·Kudeaketa Software·

·Cloud· ·Backup· ·Sareak·

·Telekomunikazioa·

algitech

informatika zerbitzuak

www.algitech.net • Tfno: 94.404 44 95



Reduced Eye Fatigue

Comfort

Expert Vision



idea.com

Ukrainako gatazkak bertako umeen etorreran eraginik izango ez duela jakinarazi du Txernobilgo Umeak elkarteak.

du. "Aiaraldeko 13 familietatik hiruk baino ez dute aurten haurra estreinako aldiz hartuko". Elkar-teen esanetan, krisi ekonomikoa da udan zehar ume bat zaintzeko ardura hartzera animatzen diren familien gutxitzearen arrazoieta-ko bat. Baina ez da bakarra. Sada-bak arrazismoa jarri du jo puntuan ume sahararren kasuan. "Jendea-askok esan digu ea zergatik ekarriko ditugun *moro*gehiago, hemen dau-*denguz* tiekin". Duela bost urte Aia-raldeko familia batekin gertatuta-koa etorri zaio gogora Sahara Eutsi elkarteko presidenteari. Umeare-kin familiaren etxera joan ziren, bai-na bertan ez zuten haurra hartzea onartu, "neskato ilehori bat" espe-ro zutela argudiatuta. "Hor ikusten duzu oraindik sekulako arrazakeria eta xenofobia dagoela".

Okerrena, buelta

Ekaineko bigarren hamabos-taldian dira etortzekoak Sahara, Ukraina, Bielorrusia eta Errusiako haurrak Aiaraldera, eta bi hilabete igaroko dituzte hemen, abuztuaren amaiera aldera arte.

Ume bat euren etxean hartzea buruan duten familiek datorren udara arte itxaron beharko dute, beraz. Horretarako, aipatutako el-karteetako batekin kontaktuan ja-rri besterik ez da egin behar. Car-balhok azaldu du familiekin elka-rrizketa eta hitzaldiak izaten dituz-tela, "harreraren alde polita zein alde gogorra azaltzeko". Umeek izan ditzaketen ohiko erreakzio ba-tzuen inguruan mintzatzeko egiten dituzte aurretiazko bilera horiek.

Era berean, elkarriketa horiek familiaren "test psikologiko" mo-duko bat egiteko baliatzen dutela ere gaineratu du Bikarte elkar-teko kideak, haurra hartzeko prest dauden edo ez ikusteko. Hala eta guztiz ere, umea lehen aldiz ekar-tzen duten familien "%99ak" hu-rrengo urteetan ere hartzen due-la azpimarratu du Bikarteko kideak. Carbalhok azaldu egon direla kasu batzuetan familiaren eta umearen perfil psikologikoek ez dutela bat egiten, umearen adjudikazioa itsu-mutuan egin behar izaten dutela-ko. Baina, bere hitzetan, unerik go-gorrena oso bestelakoa da: "Abuz-tuaren bukaeran agur esan beha-rrakeragiten duen tristuran datza".

"Ni bezala, badaude hemen bizitzera geratu diren ukrainarrak"

OLGA KYTSYURA (Ukraina, 1983) Txernobil elkar-tearen bidez etorri zen lehenengo haurretako bat izan zen. 12 urte daramatza Laudion bizitzen.



Laudion bizi da orain Olga Kytsyura.

ERREDAKZIOA I

13 urte zenituela etorri zinen lehenbiziko aldiz. Zer oroitzen duzu garai horretatik?

Ume guztiak hegazkin handi batean etorri ginen, eta bakoitza familia batean hartu gintuzten, 2 hilabetetan zehar, udan izan zen orduan ere.

Ez zen gogorra izan, baina apur bat arraroa bai, ez nekiela-ko ez hemengo kultura, ez he-mengo hizkuntza, ez ezer. Zero-tik hasi behar zinen, hizkuntza ikasi, asko entzun eta gutxi edo ia ezer ez hitz egin.

Bigarren urtea hobia izan zen zentzu horretan?

Askok hobia izan zen. As-koz askeago sentitzen nintzen, jada jendea ezagutzen nuen, hiz-kuntza ere gehiago menpera-tzen nuen (jendeak esaten zue-na ulertzen nuen eta erantzute-ko gai nintzen). Kultura ere uler-tzen hasi nintzen... lagunak ere eginak nituen.

"Ez zen gogorra izan, baina apur bat arraroa bai, ez nekielako ez hemengo hizkuntza, ez hemengo kultura, ez ezer"

Noiz pasa zinen udan soilik etortzetik jarraikortasunez he-men bizitzera?

Hemen hartzen ninduen fa-milia ea hona etorri nahi nuen ikastera galdetzen hasi zitza-i-dan. "Noskil", esan nien. Eta or-duan etortzen hasi nintzen, bai-na ez umeak ekartzen zituen el-kartearen bidez, familiaren bidez baizik. Eta horrela geratu nintzen hemen.

Telekomunikazio ikasketak egin nituen, oso gogorra izan zen. Menperatzen ez duzun hiz-kuntza batean ikasi, eta tekno-logia gainera. Baina lortu nuen. Ikasketak bukatu nituenean kri-sia hasi zen, eta apur bat zaila bi-lakatu zen lana topatzea. Bai-na aurrera jarraitu nuen, eta or-duz geroztik beti topatu dut la-nen bat, nire ikasketekin zer iku-sirik ez izan arren.

Zutaz gain, badago hemen ge-ratu den beste ukrainarrik?

Badaude beste ukrainar ba-tzuk hemen geratu direnak ikas-tera eta bizitzera, ni bezala. Eta egia esan orain ez dut ia kontak-turik haiekin. Imajinatzen dut ba-koitzak bere bizitza egin duela eta jada ez dutela interesik ira-ganeko jendearekin kontaktuan jartzeko, normala da.

Harrera elkarteek diote he-men egonaldi bat egiteak osa-sun onura handiak dituela Txer-nobilgo istripu nuklearraga-tik eragindako haur batentzat. Zuek ere onura horiek nabari-tzen zenituzten?

Bai, nabaritzen genituen. Jana-ria hobia zen, hondartzara joa-teko aukera zenuen baita... ez da-kit nola azaldu. Askatasun gehia-go zeneukan, jende desberdina zegoen...

Bukatzeko, zer esango zenie-ke udan haur bat hartzeko as-motan dabilzan familiei?

Umeei laguntzeak merezi due-la, eurek eskertu egiten dutela-ko. Merez du, bai umearentza-ko eta baita umea hartu egiten duen familiarentzako ere. Lehe-nek laguntza jasotzen dutelako eta bigarrenek laguntzen ari di-rela sentitzen dutelako.



PERFECT VISION

Polaroid
Polarized Sunglasses

LUYAND OPTICOS

Amurrio:
Elexondo 1
945 89 24 22

Laudio:
Pio XII 3
94 404 22 86

Orduña:
Barria 7
945 38 44 99

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

1945. urtetik Laudion zurekin

Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIK

_kultura

Aiaraldea elektronikoa: musikaren txispa entzuleen su

80. hamarkadan hasi zen musika elektronikoa Euskal Herrian hedatzen, eta Aiaraldera ere iritsi zen. Taberna oso zehatz batzuetan entzun zitekeen musika mota izan arren, urteen poderioz zale kopurua handitzen joan da. Gaur egun ugariak dira eskualdean elektrifikatzen duten musikari zein elkarteak, Aiaraldea Sound System, esaterako.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren

"XX. mendean, II. mundu gerraren osteko iraultzak iraultza zabaldu zuen mundu guztira. Ez jendartean bakarrik, baita musikan ere. Izan ere, orduan hasi ziren marxan elektronikak, telediskak, zineak, magnetofonoak, diskajogailuak... Hala, mugimendu eta estilo berriak sortzen hasi ziren. Musika elektronikoak Alemanian du jatorria. 60.hamarkadan sortu zen. Generadore elektrikoaren bitartez soinuak fabrikatu eta nahasten dituzte. Euskal Herria 80.hamarkadan iritsi zen, sintetizadoreak, erritmo kaxaketa beste hainbat makina ohiko instrumentuekin (baxua, kitarra, painoa...) nahasten hasi zirenean.

Aiaraldean ere hedatu da, lera Garaio eta Eder Mendiak Aiaraldea Irratiko Euskrats irratsaioan egindako azterketaren arabera. Horren adibide da iaz sortu zen Aiaraldea Sound System mugimendua. Pawel Kusmierz-en hitzetan, kultura zabaltzeko kolektiboa da. Egitasmoa Bizkaiko mugimendua ikusita abiatu zuten: "Landa-zuri Bass Fundatioreko gazteekin batu ginen jaialdi bat egin eta soinu mahaia erosteko". Lehen kanpora joaten ziren emanaldiak ikustera. Orain, ordea, bertan antolatzen dituzte jaialdiak. Audio eta Amurrioren kasu. Musika eta kolektiboa jendearek ezagutarazteko facebook eta twitter baliatzen dute, besteak beste.

Belaunaldi eta ohitura aldaketa

Julio Gonzalez eta Nuria Prieto dj aiaraldearrek urteak daramatzate musika elektronikoa lau haizetara zabaltzen. Musika elektronikoaren eskualdeko hastapenak taberna eta diskoteketan eman zirela diote; Audioko Gacelan, Amurrioko Goscan eta Urduñako Pimiento tabernetan. Teknomusikaren abiapuntutzat, aldiz, Audioko Numeros 1 diskoteka dute. Lehen dj-ak irratiaren musika jartzen zuten pertsonak izan zirela diote, diskoekin jolasten zutenak haiek zirelako. Musikaren mugimendua hedatzearen arrazoitzat bidaiatzea dute, estiloen migrazioa ekarri zutelako. "Biniloak ekartzen ziren eta gero kasetetan grabatu".

Nuria Prietok duela zortzi urte egin zuen lehen plaza. Geroztik, Fever eta bestelako hamaika aretoetan aritu da musika jartzen. "Gara hartan lau dj ginen, gutxi genuen materiala". Musika jartzetik abes-



Nuria Prieto laudiarra duela zortzi urte hasi zen musika elektronikoaren munduan murgiltzen. Argazkia: Nuria Prieto

tiak nahastera alde handia dagoela dio: "Gaur egun edonor da dj, baina atzetik dagoen lana ez da ikusten: binilo bilduma lortzea, kantu-egia aukeratzea, ordenatzea...". Prietorentzat musika emozioa da, "izan klasikoa zein elektronikoa". Baieztapenarekin bat dator Julio Gonzalez ere. Musika elektronikoaren kasuan kontzentrazioaren garrantzia azpimarratzen du: "Biniloak kolpatu, frenatu, kanta aldatzeko nahastu... beste istorio bat da". Musika elektronikoaren entzuten baino ikusten ikasten dela pentsatzen du. Horretaz gain, unea, giroa eta jendearen erreakzioak kontrolatzen jakin behar dira, haren ustez: "Lehiakortasun eta harrotasun handia dago". Horregatik, musika agresiboa jarriz gero pistan jendea aztoratu egiten dela dio, eta musikaren bidez jendea animatu eta barretzen jakin behar dela.

Musikak bilakaera jasan duela garbi du: "Abestiak ia ez dira bolumen jaitsierarekin bukatzen, hasiera eta amaiera behar dute". Aro digitalak dj-ak areagotzea ekarri du, Prietoren iritziz, "antzerkia egiteko ederra delako, eskratxeatzen duzula antzez dezakezu eta playari ematen egon". Barrezka, hari dj-aren ipurdia ikusteagustatzen zaiola kontatzen du, maletatik diska hartzen duela ikusteko.

Dj-en mundua, maskulino

"Dj-en mundua oso maskulinoa da". Woman dj-aialdi ospetsura beti gonbidatzen dute, baina ez da sekula joan: "Diruagatik nahi gaituzte, mutilak eramango dizkiegula-

Berria da musika elektronikoa entzuteko ohitura Aiaraldean. Lehen pausoak taberna eta diskoteketan eman ziren.

Musika elektronikoaren mundua oraindik oso maskulinoa dela aitortzen dute eskualdeko DJ-ek.

ko. Niretzako hori ez da detaile bat, matxista izatea baizik". Era berean, musika elektronikoaren munduan berekoikeria gehiegi sumatzen du: "Gure musika egitean bakarrik zentratzen gara, transmisioa fal ta da. Niri Numeros 1 diskotekan astean zehar ikastera joateko gonbita luzatzen zidaten. Spotifyrekin ditugun aukeraguztekin zein muga txikietan ibiltzen garen ikusita... astoak bezala goaz!".

Mikel Morenok "Mike Mo" ezizenarekin trap, base eta future estiloak dantzalekuek eramanen ditu: "Duela 2 urte ezagutu nuen musika hau, egunero entzuten dut eta oso motibatua nago". Eskualdeko eta Euskal Herriko hainbat txokotan aritu da dj lanetan: "Txitxarrron jotzeko deitu zidaten. Parrandan beharrean jotzera joatea oso berezia izan zen niretzat, kristona. Nire alde beltzera erakutsi nuen: soinu beltzak, minimal eta horrelako musika".

Durango "Gau elektronikoa" proiektuan ere hartu zuen parte: "Etorritako artisten eta entzuleen aldetik oso jaialdi arrakastatsua izan zen. Orain, ezinez aldatu eta beste musika estilo batekin nabil, hip-hot, trap, future bass...hip-hop musika dantzalekuek eramateko erritmoekin".

***info: euskrats**

Aiaraldea Irratiko musika elektronikoari buruzko saioa



Patxi

Iturregi
IDAZLEA

_Kamerinoa

Ametsak

Neguko eguraldi txarrak sortu ohi didan nagikeria gaituta, joan den astean Blue Jasmine filma ikusi nuen Bilbon. Ondo dakizuen, Woody Allen zuzendariaren azken lanaz ari naiz, sari eta kritika ezin hobeak jaso dituen horretaz. Eta aitortu behar dut biziki gozatu nuela Brooklyngo zinemagileak eskainitako azken komediaz. Hala ere, aretoko argiak berriro piztu zirenean, zeluloidezko magiak sortutako liluramendu goxatik ateratzeaz batera, tristura sentipen bat jabetu zen nitaz, eta zuzendari estatubatuarren aurreko pelikula bat etorri zitzaidan gogora: *Cassandra's Dream* (2007). Eta zergatik gogoratu nuen film hori eta ez bere filmografia zabaleko beste edozein? Bada, euskarara bikoiztua dagoen bakarra delako hain zuzen ere. Berrogeita hirutik bat. Ez al da lotsagarria?

Niri zilegi iruditzen zait zinea euskaraz ikusi nahi dugula aldarrikatzea, nahiz eta bikoizketa garesti samarra suertatu, horixe baita gure kulturaren nabaritzen dudan hutsune handienetarikoa. Izan ere, euskaraz ez dugu zinema erreferentziarik bat ere. Pelikula baten aipamena egin behar izaten dugu beti ezinbestez, denok gaztelaniara bikoiztuta ikusi dugulako. Zer esanik ez, ahotara ekartzen duguna elkarrizketa pasarte ezagunen bat denean.

Bestalde, gaur egun asko hitz egiten da azpiztituluei buruzko egokieraz, baina niri irtenbide hori trikimailu merkea iruditzen zait. Diglosia egoera gaitzizko, euskaraz egindako filmak sortu behar ditugu aurrenik, eta al-bait gehien bikoiztu bigarrenik, eta gero gerokoak. Ametsa ote nire?



_kultura

_kultur leihoa



Lander Arteaga
ZINEMA

X-Men: Iraganeko etorkizunaren egunak

Zuzendaria/Gidoia: Bryan Singer
Herrialdea: AEB
Ekoizpen-urtea: 2014

Etorkizuna: leku ilun bat. Mutanteak eta gizakiak elkarri laguntzen, menpean hartu ezin dugun etsai baten aurka. Zerbait ezberdina egin izan bagenu, guk gure buruei ezarritako zoria aldatzerik legoke?

Iragana: Aukeraz beteriko lekua. Gure erabakien emaitza baikara. Mugagabeko erabakiak, ondorio anitzak; inoiz zehaztuta ez dagoen etorkizun bateraino.

(Charles Xavier irakaslea)

X-Men: Iraganeko etorkizunaren egunak filman entzungo ditugun bi esaldi hauek dira mutanteen unibertsoaren inguruko bosgarren ekoizpen hau hobekien definitu dezaketen hitzak. X-Men taldeko kideak irabazi ezin dezaketen guda baten erdian daude, Zentinelaren izeneko roboten aurka. Konponbide bakar batekin: historia aldatu.

Jatorrizko trilogiako mutanteak eta X-Men: Lehen belaundikoeak bat egiten dute akzioz beteriko film entretenigarri honetan. Horretarako, Bryan Singer bueltan dago zuzendari lanetan, eta Patrick Stewart edota Hugh Jackman aktoreek James McAvoy edota Michael Fassbender-ekin bat egiten dute.

Teknikoki bikaina, berriro ere X-Men taldearen film batek akzioa baino askoz gehiago eskainiko digu; bizitza aldatu dezaketen erabakien inguruko hausnarketa bat. Zaleen, eta zaleak ez direnen, gozamenarako eraikitako film ikusgarri bat.

Oharra: pelikula hau ekainaren 6an estreinatuko da, guk aurrez ikusteko aukera izan badugu ere.

Herriko artista gazteentzako grafiti lehiaketa abiatu du Udalak



ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Laudioko Udalaren gazteria arloak herriko 16 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako grafiti edo horma-irudi lehiaketa jarri du abian. Iazko udan antolatutako "Milakolore" tailerraren bidez hiri-arteak sustatzeko abiatutako ekimenari helduz, herriko 4 hormatan muralak egiteko aukera izango dute irabazleek. Aurkeztutako lanek Audio-rekin zerikusia izan beharko dute, herriko jaietako elementu adierazgarriekin edo pertsonaiekin esaterako. Ez dira onartuko, ordea, alderdikoiak, lotsagabeak, lizunak, xenofoboak, sexistak edo pertsonen duintasunaren edota giza eskubideen aurkakoak jo daitezkeenak. Margotuko diren hormen kopurua udal web-gunean iragarriko dira datozen egunetan. Hormetarako zirriborroak A3 tamainan aurkeztu beharko dituzte lehiakideek, erabiliko diren materialen zerrendaz lagunduta. Horma bakoitzeko, gehienez, zirriborro bi aurkeztu ahal izango dira.

Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 2tik 30a bitartean egongo da zabalik eta epaimahaiak uztailaren 8an emango ditu ezagutzera proiektu irabazleak. Lehiaketa arautuko duten oinarriak eta gainerako dokumentazioa udalaren web-gunean eskura daiteke. Horma-irudiak uztailaren 11tik 20ra bitartean margotuko dira eta udalak beharrezko material guztia jarriko du irabazleen eskura. Gazteria zerbitzuko telefonoan, 944034850, eta educacion@audiokoudala.net posta elektronikoa lehiaketaren inguruko argibide eskaerak erantzun dituzte.



Aste osoan zehar egingo dituzte ekintzak. Argazkia: aiaraaldea.com

Gastronomia eta musika nagusi Andaluzia Etxearen Aste Kulturalean

ERREDAKZIOA | Lucia Menoyo

Laudioko Andaluzia Etxeak Aste Kulturala ospatuko du ekainaren 6tik 8ra, jardunaldi hauen hamaikagarren edizioa da aurtengoa.

Ekitaldi gehienak Andaluzia Etxearen atarian eta Untzueta plazan ospatuko dira. Huelvan egiten den Errozioaren Erromeriarekin lotzen dute antolatzaileek aste kulturala.

Gastronomiak leku garrantzitsua izango du Aste Kulturalean. Izan ere, larunbat goizean gazpaxto, untxi eta tortila lehiaketa egingo da, adin guztiei zuzendutakoa. Jarraian, urdaiazpiko eta ardo zuria fina dastatzeko aukera izango da.

Dantza eta musika ere funtsezko osagaiak izango dira. Larunbat arratsaldean flamenkoa izango da

jaun eta jabe. Andaluzia Etxeko Algarabia dantza taldeak eta Algazara abesbatzak bere emanadiak eskainiko dituzte. Gitarra kontzertua eta talde erroziero baten emankizuna ere gozatzeko aukera egongo da. Algarabiako kide den Haizea Parisek azaldu du flamenkoa ez dela zertan Andaluziar kulturarekin soilik lotu behar, eta gaineratu du halako ekintzen bidez Andaluziar etxeak "Laudion flamenkoa zablatzea" duela xede.

Meza errozieroa, "ezberdina"

Urtean zehar Andaluzia Etxeak dantza eta musika ikastaroak eskaintzen ditu. Elkartetik, interesa duen edonori larunbatean hurbiltzeko deia luzatzen diote, zer eskaintzen den ikusi eta ikastaro eiburuzko informazioa jasotzeko.

Igandean meza errozieroa ospatuko da Untzueta Plazan. Meza berezia da, kalean egiten delako, abestuz, eta jarraian idi eta andaluziar zaldiek eramandako gurdiaz prozesioa egiten delako. Andaluziar Etxeko kide den Haizea Parisek azaldu du ez dela zertan fededuna izan behar meza ikustera joateko, ohiko mezekiko ezberdina delako.

Igandean bertan emango zaio bukaera aste kulturalari. Meza errozieroaren ostean Andaluziar Etxeko lehendakariak eta agintariek hartuko dute hitza.

+info: bideoa
Andaluziar
Etxearen IX.
aste kulturala



TAUPADAZ TAUPADA: Sembrando Kaos

Entzun Sembrando Kaos taldeari Taupadaz Taupada saioan eginiko elkarrizketa.



Jabi Aspuru
IRAKASLEA

_Lurpetik

Aita "Fidel de Lekamaña"

Amurrioko udal liburutegian liburu bat dago, baina oso jende gutxi daki egilea amurriarra dela. Ez da harritzekoa; oso jende gutxi ezagutzen du egilea eta liburua bai Amurrioren, eta bai Euskal Herrian ere. Horrek ez dio garrantzirik kentzen, askotan bitxikeriak ezezagunak izaten dira. Gainera kasu honetan ezezagutzak bere zergatia du. Geure azken urteetako barne historia zuri beltzean kokatzen da zergatia.

Liburuak "Soberanía vasca: Cuestión de justicia" du izenburua eta Tartalok argitaratu zuen 1990 urtean F. Aretxaga ezizenarekin. Lizarra-Garaziren garaian Euskaria erakundeak berriz argitaratu zuen 1998 urtean. Ezizenaren zergatia egileak, liburuan azaltzen du. Hil baino lehenago bere nortasuna aditzera eman zuen.

Egileak Sixto Galíndez de Castañiza Llano ("Fidel de Lekamaña" abade kaputxinoa Filipinetan ibilitakoa, 1923-2001) du izena. Liburuxkak ez ditu 90 orrialde baino gehiago baina ezin hobeto azaltzen du Euskal Herriaren historia Erdi Arotik gaur egunera arte.

Ezizenaren zergatia gure azken urteetako gatazkan kokatzen da. ETak 1981 eta 1985 urteetan Felix eta Estanis anaiak hil zituen, eta Sixtok hiletako mezatan gortsi zituen oso minduta. Bost urte beranduago argitaratu zuen liburua.

Azken boladan ETaren biktimak direla eta, mende-kuaren aldeko mugimenduak nagusitu dira, Madriletik bultzaturik haute etekinak bilatuz. Argi dago beste jokabide zintzoagoak gertatu izan direla gure inguruan.

Udaletxe ondoan kultura gunea egiteko proiektuak aurrera jarraitzen du, ikerketa xehatu baten bidez

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez

Hilabeteak pasa dira Audio-ko udal gobernuak talde kultural eta sozialei gune kultural batera konproposamena aurkeztu zientetik. Bertan, udaletxe ondoko orube hutsan, Aldai plazara ematen duen horretan, zinea edota teatroa egiteko aukera azaldu zuten.

Proposamena Obra eta Hirigintza Sailaren Batzorde Informatibora eraman zuten pasa den astelehenean. Bertan, iker-



Udaletxe alboko orubean eraiki nahi dute gunea. Argazkia: aiaraaldea.com

keta xehatua egingo dela azaltzen da. Horren ardura Cultiva eta Map enpresek izango dute, biak Udalarekin kolaborazioan. Haiek egindako proiektuak udalerrian gune kul-

tural berriak lortzea du helburu. Ikerketa egiteko lau hilabete izango dituzte. Besteak beste, espazio kulturalaren edukiera analizatu-

kirola



IÑAKI

Isasi

TXIRRINDULARIA

—Helmugari so

Kaskoa ipini

Duela gutxi, irten berri den legearekin, txirrindulariek kaskoa noiz ipini behar duten inguruko eztabaida sortu da. 16 urte azpikoek kaskoa derrigorrezkoa dute, bai hirian zein hiritik kanpo. 16 urte baino gehiagorekin soilik hiritik kanpo. Batzuentzat, gehiegikeria ematen duen lege huagian ez da hainbesterako.

Gaur egun zorrotzegia iruditu daitekeen araua, urte batzuk barru seguru asko ez zaigu hainbestekoa irudituko, guztiz kontrakoa baizik.

Egoera askotan kaskoa eramatea beharrezkoa ez dela iruditzen zaigu... zorigaiztoko istripua gertatu arte.

14 urterekin lagunekin lasterketetan hasi ginenean, kaskoa beharrezkoa zen. Laster hasieran gustuko ez genuen arau horri ohitu ginen. Profesionalailek ailegatuta, arau hori eten egin zen. Profesionala nintzen, ez nuen kaskoa eramateko beharrik. Eta harrigarria dirudien arren, profesional gehienek ez zuten kaskoa erabiltzen. Esango nuke tropeleko ehuneko 5ak baino ez genuela ipintzen. Are gehiago, profesionalen artean kaskoa erabiltzea "gaizki" ikusita zegoen.

Askok, beraien aurrean izandako erorketen ondorioz hildako bat gertatu ondoren, kaskoa ipintzen hasi ziren. Beste askok arau berrien ondorioz hasi ziren erabiltzen.

Zorionez, gaur egun profesional guztiek eramaten dute kaskoa lasterketetan eta istripu asko ekiditen dira horri esker.

Ohitu eta erabili kaskoa!

IGERIKETA: Umeentzako igeriketa ikastaroa antolatuko du Okondoko Udalak

5 eta 12 urte bitarteko umeentzako igeriketa ikastaroa antolatu du Okondoko Udalak. Uztailaren 2tik 30ra bitartean egingo da eta udalean zein udalaren webgunean informazio gehiago jaso eta izena eman daiteke jada. Ikastaroak 25 euroko prezioa izango du.

KARATE: Bi medaila lortu dituzte Euskadi mailako Eskola Kirol finalean

Laura Gonzalez eta Iker Zubizarreta laudiarrek medaila bana lortu dute Gazteizen jokatu den Euskadi mailako Karate Eskola Kirol finalean. Gonzalezek zilarrerzko domina lortu du, kumite 40 kg. kategorian. Zubizarretak, berriz, brontzekoa Kumite 55 kg kategorian.



KICK BOXING: Ibai Ruiz-ek Euskal Herria ordezkatzeko du maila profesional

Ekainaren 6, 7 eta 8an Estatu Espainiarreko Kick Boxing Txapelketa izango da Iruñean. Ibai Ruiz amurriarrak Euskal Herria ordezkatzeko du profesional mailan. 23 urte ditu gazteak eta lehen aldiz lehiatuko da maila horretan, hori dela eta, Aiaraldetik jendea hurbiltzea eskertuko luke.

AIZKORA

“Datorren urtean Urrezko Aizkorara aurkeztu, finalera iritsi eta irabaztea da nire asmoa”

JOSE ANGEL ZUBIAGA (Lendoñobeiti, 1977) Urrezko Aizkora txapelketa jokatu gabe geratu da aurten. Baina norgehiagoka asko irabazi ditu aizkolari gisa daramatzan 17 urteetan zehar; Arabako 9 txapelketa, besteak beste.

ERREDAKZIOA I

17 urte daramatzazu egurra moztzen, ibilbide luzea.

Ohikoa da. Aizkolari askok 20 urte inguru daramatzate egurra moztzen. Aizkolarien artean esaten da adin hoberena nik orain daukadana dela, 36-37 urterekin.

Eta zuk hala nabaritzen duzu?

Bai. Entrenamendu erdiarekin 26 urte nituenen baino askoz gehiago errenditzen dudala ikusten dudalako.

Nola sartu zinen herri kirolen eta aizkoraren munduan?

Kasualitatez hasi nintzen, egia esan. Artziniegako sokatira taldean sartu nintzen lehen-dabizi, eta gero nire lagun bat eta ni aizkolari moduan hasi ginen. Eta gero nik jarraitu nuen bakarrik, egurra moztu eta moztu. Nafarroako eta Bizkaiko aizkolariek ezagutu nituen eta Ziordira beraiekin entrenatzera joaten hasi nintzen.

Ez duzu lortu dituzun sari guztiak oroitzen, baina errepaso azkar bat egiterik izango zenuke?

Uste dut Araba mailako 9 aizkolari txapelketa irabazi ditudala, Araba mailako bikotekako hiru, 3. mailako Euskadiko aizkolari txapelketa bat... 2. mailako Euskadiko aizkolari txapelketa txapelkunorde izatera iritsi nintzen, eta lehen mailara igo nintzen. Bi urtez aritu izan nahiz lehen mailan jokatzeko, 12 aizkolari one-

“Kirol amateur moduan tratatzen da aizkora, eta geroz eta gorago egon orduan eta diru gehiago galtzen duzu”

“Aiaraldean, 14 urtetan zehar, ni bakarrik aritu naiz aizkora, ez dago ia ezer”

nen artean. Eta Urrezko Aizkora norgehiagokan bikotekako final bat galdu egin genuen baina beste batean irabazi egin nuen.

Hainbeste titulurekin beste edozein kirolean gailurrean egongo zinateke...

Kirol amateur moduan tratatzen da aizkora. Postu gorenetan egoteko profesional baten antzera entrenatu behar da, baina kirol amateur bat izaten jarraitzen du. Profesional ugari egongo dira ez dutenak lehen mailako aizkolari batek entrenatzen duena entrenatzen.

Eta geroz eta gorago egon, orduan eta diru gehiago galtzen duzu. Azken finean, lehen mailako aizkolari batek gastu askoz gehiago ditu: aizkorak, prestaketa... gaur egun ia denek medi-

kua eta prestatzaile fisikoa dituzte. Eta horrek guztiak diru asko balio du.

Baina aurten ezin izan zara Urrezko Aizkorara aurkeztu.

Ez, nire bikotea den Floren Nazabal lesionatua egon delako. Baina datorren urtean aurkeztea espero dut... eta irabaztea.

Txapelketek gain erakustaldiak ere egiten dituzue aizkolariek. Erakustaldi asko egiten dituzu zuk?

Azken urte hauetan zehar erakustaldi kopuruak behera egin du apur bat. Udal guztien aurrekontuak jaitsi egin dira, eta murrizketak alde guztietatik egin behar direnez guri murrizketa horien zati bat ere egokitu zaigu. Geroz eta erakustaldi gutxiago egiten dira. Gehiago egin dezakedala ikusten dudalako. Ezin dut azaldu zergatik den horrela, baina hala da.

Etorkizunera begira lehiatzen jarraitzeko asmoa duzu beraz...

Aurten dudana asmoa aipatutako txapelketetan aritzea da. Eta gero bikotekako Urrezko Aizkorara aurkeztea, finalera iristen saiatzea eta irabaztea. Hori da gainditzeko eratzen zaidan meta bakarra.

Aizkolari belaunaldi berriak daudela ikusten duzu?

Arabako ez da jende asko azaltzen ari. 8-9 inguru egongo dira jarraikotasun batekin lehiatzen. Baina Euskadi mailan aizkolari asko ari dira azaltzen. 18-24 urte bitarteko 50-60 gazte inguru egongo dira.

Eta Aiaraldean?

Ni 14 urtez bakarrik aritu izan naiz, eta orain Gaizka Lopez ere hasi da eta nirekin dabil. Ez dago ia ezer.

Argazkia: Julen Uribe



ELKAR·Ekin AIARALDEAGOA

"Energia aldakuntzak eragiteko ahalmenarekin lotuta dagoen magnitudea da" WIKIPEDIA



279 GARA
+  -
1000
LAGUNEN
ENERGIA
BEHAR DUGU

-  PERTSONAK 01
-  ELKARTEAK 02
-  SALTOKIAK 03
-  ENPRESAK 04

ZUREA EMATEKO PREST?

BATU ZURE **ENERGIA** EUSKARAREN **ELKARGOAN**

EKARPEN MOTA

Lehenik eta behin zure energia ekarpena DENBORA edo DIRUA izango den erabaki behar duzu. Bi gauzak emateko aukera ere duzu noski.



TAMAINA

Ekarpen horren tamaina zehaztu behar duzu gero:
> 20 edo 50 ordu/urtean
> 50 edo 120 €/urtean
Denbora zein dirua emateko modua ere hautatu ahal izango duzu.



EMAN IZENA

elkargoa.aiaraldea.com
web-helbidean sartu eta bete zure erregistroa.
Nahiago baduzu telefonoz ere egin dezakezu.



ZALANTZAK DITUT

Zalantzak argitzeko edo eta erregistroa telefonoz egiteko 688 647 942 zenbakira dei gaitzazu edo bidalguzu mezu bat whatsapp edo telegram erabilita eta jarriko gara gu zurekin harremanetan.



Tlfnoa. 688 647 942



<http://elkargoa.aiaraldea.com>



elkargoa@aiaraldea.com

AIARALDEA HERRI **ELKARGO**A

Elkargoa euskararekiko jarrera aktibo bat duten Aiaraldea eskualdeko elkarte, norbanako, saltoki eta enpresek osatzen duten elkartasun espazio bat da, elkargoko kide diren entitateen garapena eta ongizatea helburu duena komunitate proiektu komun bat garatzeko, euskara, komunikazioa, tokiko merkataritza eta herrigintza ardatz hartuta. Elkarri lagundu, elkarrekin eragin eta elkarrekin hazi.

_Herriko plaza

_agurrak



Peio

Zorionak Peio!!! Urte bat zaharrago egin zara, ondo pasa zure egunean! Zaindu itzazu kanak!! **Izaro eta lera**



Asier

Zorionakaitatxu!!! Txirrin-dulari aparta eta sukaldari bikaina. 41muxe! **Jule, Olatz, amama Nieves, amama Paz eta Amatxu.**



Maider

Zorionak Maider ta oso ondo pasa zure urtebete-tzean! Maite zaitugu! **Lagunak**



Nahikari

Zorionak maitea! Lau urte. Oso zoriontsuak egiten gaitu-zu, batzuetan apur bat ipurte-rra izan arren. **Gurasoak eta anaia**



Eneko

Zorionak Eneko zure 3.urtebetetzean. Askomaite zaitugu, musu handia. **Etxekoak**




Ekain

Zorionak Ekain zure seigarren urtebetetzean!! Gure mundua zara. Askomaite zaitugu. **Aita eta ama**

_BIDALI ZUREA! Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com-era ekainak 12a baino lehen.

_denborapasak





EZKER-ESKUIN

1. Zazpigarren zenbaki lehena. 2. Arabako udalerri bateko biztanle. 3. Errazurratzen dena, hauskorra. 4. Jatorria adierazteko erabiltzen dugu atzizki hau. Urarioaren ikur kimikoa. Joan aditzaren erroa. 5. Bidaia batean gelditueetatik gelditueetara egiten diren bideak. Bostehun eta bat zenbakierromatarren arabera. 6. Distantzia jakin batean kokatuta dagoen metalezko xafla estu baterantz metalezko diskoak jaurti eta hura jotzean datzan jokoa. Ongi, ondo. 7. Musika nota, eskalan zazpigarrena. Aita edo ama da. 8. Trebetasun, abilezia. 9. Bilera batean eztabaidatu eta erabakitakoa idatziz jasotzen duen agiria. Musika nota, eskalan seigarrena. Bokalik biribilena da ezbaierik gabe.

GOITIK-BEHERA

1. Aukeratua, hautatua. 2. Ugaztun karraskariak, saguak baino handiagoak eta oso nazkagarriak. 3. Arrastoak, lerroak. Idi, hitz elkartzeetan. 4. Sortu zintuena. Zuhaitz hosto erorkorra, Euskal Herrian oso ugaria. 5. Zorro eskuarki handia. Utik, utikan! 6. Ipar Euskal Herrian, zain, esperoan. Abesbatzari edo koruari dagokio. 7. Burua galdu du, ero. Zama-ontzietako karga lehorreratzeko edo ontziratzeoko plataforma, kaia. 8. Edozein toki atsegin eta gustagarri. 9. Bizkaieraz, iratzea, garoa. Irudi mota, eskuarki erlijio gaiei lotua.



SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.com/users/denborapasak>



_#sexgatik (:><:)

Nire gelakideek euren argazkiak bidaltzen dituzte barruko arropan watxapez!! (VHodei)

Sare sozialek komunikazio eredu berrien sorrera ekarri dute, pertsonen arteko interakzio formak aldatuz. Horietako bat sexting-a da. Mugikorren bidez eduki sexualen bidalketan datza, igorleak sortutako eduki hori soinu grabazioak, argazkiak edo bideoak izan daitezke non protagonista jarrera sexualean, biluzik edo erdi biluzik agertzen den, batez ere bikoteari eta maiz lagunei jolas moduan zuzenduta. Nera-been edo gazteen artean hedatutako komunikazio mota da baina helduek ere erabiltzen dute. Ez dago ezer txarrik zuk zure buruari argazkia atera nahi izatean baina hortik aurrera zer gertatu daitekeen jakitea garrantzitsua da. Mugikor terminal batean dagoen irudia ez dago seguru hainbat modutan atera daitekeelako gailutik: lapurreta, akatsa, broma, galtzea... edo jabearen borondateagatik; norbanakoaren irudia datu pertsonaltzat hartzen da, beraz, datu pertsonalen legez kontrako hedapen bilakatzen da; bidalketa egitean hasierako igorleak edukiaren gaineko hedapen kontrola galtzen du guztiz eta irudia domeinu publikoko eduki bihurtzen da, ez dakigu non/nola erabiliko den. Irudia ateratzeko baimena izateak ez du hedatzeko baimenik ematen eta bidaltzen laguntzeak konplize bihurtzen zaitu! *[Bidali zure galdera sexgatik@aiaraldea.com helbidera!]*

_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Polita da etxean txakurra edo katua izatea. Txikiak direnean euren gainean gaude, baina urteak joan ahala egunerokotasunean murgilduta gaudela, ahazten ditugu maiz. Saia gaitzen euren adierazten duten poztasuna itzultzen!



HERENSUGE

03.21-04.20

Denek esaten dizute dortoken moduan egiten dituzula lan guztiak. Zuk behar duzun erritmoa bada argi utzi. Lan lasterra, lan alferra izan ohi da. Hala ere, saia zaitez gogotsu egiten.



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Zein gogorra den gurasoa izatea. Umearen negarrak zuri ere negarra eragiten dizu orain. Zaila da liskarrak baretzea eta are gehiago gogoz kontrako erabakiak hartzea. Baina gogoratu beti garaipena neke askoren ondorena datorrela.



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Bikote berria lagunei aurkeztearen beldur zara. Argi eduki zu zoriontsu ikustearekin nahiko dutela, baina zer edo zer esango balute hasierako garrantzirik gabeko iritzia izango litzateke, eta horrela izanda egoera berria onartu beharko lukete.



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Egunero beldur berria erakusten duzu... beldur horiek bereganatzea ez da egokia eta kentzeko daukazu irtenbide bakarra aurre egitea da. Altueren beldur bazara joan zaitez eskalatzera! Armiarma bati beldurra izatekotan, hartzen saiatu...



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Ahatetxo itsusia sentitzen utzi eta norberaren ezaugarri politak ikusten saiatu behar zara. Inor ez da perfektua, eta bakoitzak berezitasun ezberdinak ditu, hori da besteongatik ezberdintzen gaituena. Daukazu-naz harro sentitu beti!



GALTZAGORRIAK

02.19-03.20

Askotan bizitzaren zentzugabetasunean pentsatzea normala da, batez ere gertuko jendeak galtzean. Joaten direnen ohorean euren bizi izan ez dutenaz gozatzeko ardura da gurea, egunero inguruko guztia bere osotasunean bizi eta gozatuz.



LAMIA

04.21 - 05.20

Eskolara joateaz nazkatuta zauden? Denbora aurrera joan ahala garai zoragarriena izan dela konturatuko zara. Betiko ikaskideak, ezagun dituzun irakasleak... daukazunaz jabetzen hasi!



BASANDERE

06.21 - 07.20

Kontuz ibili beharko zenuke jendearen aurrean esaten duzunarekin. Ondo dago norberaren iritzia ematea, baina askok esandakoa helburu ezberdinetarako erabil dezakete. Isilik dagoenak ez dio gezurrik, beraz, kontrola itzazu zure hitzak.



JENTILAK

08.22 - 09.22

Inguruko herrietako jaiak aitzaki, juergan ematen dituzu egunak. Hasi baino ez dira eta dagoneko itxura txarra daukazu. Ibiltari gauean, eta logale goizean zabiltza, beraz, jaien onurak begiratzeaz gain zure osasuna zaintzen ikasi!



MARI

10.23 - 11.22

Jendea zirikatzea gustoko duzu? Ez daukazu beste zereginik ala? Besteek zurekin egiten duten moduan, utzi bakean, bakean dagoenari. Zirikatzeak behar horren atzean barne gatazkak daude, saia zaitez zeintzuk diren aurkitzen eta konponbidea jartzen!



SUGAAR

12.20 - 01.19

Maitasuna al da gure artekoa? Garai onak eta latzak daudela argi dago, baina maitasun zeinuen gabeziari erremedioa jarri, pertsona asko dago bakoitzarentzat eta hutsa sentitzea ez da ona. Zu zara zure zoriontasuna bilatzeko arduradun bakarra.

_irakurlearen txokoa

_agenda

06.05 OSTEGUNA

18:00 AUDIO
AURKEZPENA
Udalerriaren egoera
kulturala
Kultur Etxea

19:00 AUDIO
BILERA IREKIA
Gure Esku Dago Aiaraldea
Lanbide Heziketa Eskola

06.06 OSTIRALA

18:00 OROZKO
UDAL BILERA
Zubiaur Plazara: Espazioak
eta erabilera
Kultur Etxea

18:30 AUDIO
JUNIFEST
Inaugurazioa, brindisa eta
jaia
Aldai Plaza

19:00 AUDIO
IKUSKIZUNA
Il Circo Italiano
Baías Kalea

19:00 AUDIO
XI. ASTE KULTURALA
Eskulanak eta magia
Andaluziar Etxea

19:00 AUDIO
MAHAI-INGURU
AUDIO 80. eta 90.
hamarkadetan
Gaztetxea

20:00 AMURRIO
BALLET
J. Uruñuela dantza
konserbatorioa
Amurrio Antzokia

20:00 BARANBIO
SOLASALDIA
Ahuntz gaixotasunak
Garrastatxu Santutegia

20:00 BARANBIO
AFARIA
Solalsaldian parte hartu
dutenentzat
Garrastatxu Txokoa

06.07 LARUNBATA

EUSKARAZ BIZI
NAHI DUT EGUNA
AMURRION



08:00 **TXANGO**
ORNITOLOGIKOA
Herriko txoriak ezagutzeko
Herriko Plaza

11:30 **RUGBY**
Nerbioi Rugby taldearen
eskutik
Parkea

11:30 **JOKOAK**
Puzgarriak, umeentzako
jokoak eta tailerrak,
spinning saioa, irratsaioa
Juan Urrutia Plaza

15:00 **BAZKARIA**
AEKk antolatuta (9 €)

16:30 AMURRIO
BAZKALOSTEAN
Mus txapelketa,
bertso saioa

19:00 AMURRIO
UMEENTZAKO JOKOAK
Jolasak, txokolatea,
Gaztelu puzgarria

09:30 AUDIO
GURASOEN TOPAKETAK
Magalean
Kultur Etxea

10:00 AUDIO
AUZOLANA
Parkea konpontzeko
deialdia
Lamuza Parkea

10:00 AUDIO
KIROLA
Hockey Eguna
Gardeako Hockey Zelaia

11:30 AMURRIO
TOPAKETAK
Apdema elkartearen
jardunaldiak
Aresketa Ikastola

11:00 AUDIO
XI. ASTE KULTURALA
Gastronomia eta musika
Andaluziar Etxea

11:00 ARTZINIEGA
ARTZIENTZIA
Zomorroak
Etnografia Museoa

13:30 AUDIO
JUNIFEST
Garagardoa
dastaketzeko aukera,
kontzertua, DJ
Aldai Plaza

16:00 URDUÑA
PAINTBALL
Irteera
Suhiltzaileak

16:30 AUDIO
PARKEA BIZIRIK
Skate eta graffitia
Lamuza Parkea

17:00 AUDIO
IKUSKIZUNA
Il Circo Italiano
Baías Kalea

22:00 AUDIO
KONTZERTUA
JAN eta Haggish
Orbeko Etxea

22:30 AUDIO
KONTZERTUA
Radikal Hardcore eta
Basura
Sorgin Taberna
22:30 AUDIO

KONTZERTUA
Bloque H, Ou Mama eta
Ukan
Drumgorri Aretoa

06.08 IGANDEA

08:00 AIARALDEA
GURE ESKU DAGO
Giza katea
Busak aterako dira herri
guztietatik Ataun eta Le-
gazpira

AHUNTZ EGUNA BARANBIO



08:15
VII. LEHIAKETA
Azpigorri eta azpizuri
ahuntzak eta azoka

12:00 BARANBIO
MEZA
Garrastatxuko Santutegia

13:00 BARANBIO
ERAKUSKETA
Akerkoen pisaketa

14:00 BARANBIO
SARI BANAKETA
Lehiaketaren irabazleak
iragarriko dituzte

14:45 BARANBIO
HERRI BAZKARIA

17:00 BARANBIO
ERROMERIA
Dantza plaza Oskizolaren
eskutik

12:00 AUDIO
JUNIFEST
Dantzaldia eta motorren
erakusketa
Aldai Plaza

12:00 AUDIO
XI. ASTE KULTURALA
Gastronomia eta musika
Andaluziar Etxea

19:30 AUDIO
Zirkua
Il Circo Italiano
Baías Kalea

06.09 ASTELEHENA

18:00 AUDIO
IKUSKIZUNA
Il Circo Italiano
Baías Kalea

06.11 ASTEAZKENA

18:00 AUDIO
MAKE YOURSELF
Lorontziak apaintzeko tailerra
Kultur Etxea

19:30 OKONDO
OKONDO EUSKARAZ
"Okondo eta euskara: kontatu
ez zigutena"
Okondogoieneko Kultur Etxea

06.12 OSTEGUNA

17:00 TERTANGA
YOGA
Yoga saioak ingurune natura-
lean
Tertangako Eskola

06.13 OSTIRALA

17:30 OKONDO
OKONDO EUSKARAZ
Umeentzako jolasak, puzga-
rriak, musika, afaria
Herriko plaza eta frontoia

19:00 AUDIO
HERRIEN JAIALDI KULTURALA
Txosnen irekiera eta Amigos del
Swing taldearen kontzertua
Herriko Plaza

06.14 LARUNBATA

09:30 OKONDO
OKONDO EUSKARAZ
Mendira irteera, dantzak, afa-
ria, magia
Herriko plaza

11:00 AIARA
UMEEN JAIA
Haurrentzako jolasak, tailerrak,
bazkaria eta musika
Etxaurren Ikastola

11:00 AUDIO
HERRIEN JAIALDI KULTURALA
Txosnen irekiera eta Amigos del
Swing taldearen kontzertua
Herriko Plaza

Jimmyjazz gasteiz



MAI 23 // **QUIQUE**
GONZALEZ
21:00 (18 + gastos / 21 €)



MAI 24 // **SAHARARI**
KANTARI: VENETTA+...
20:00 (6 / 8 €)



EKA 06 // **COSTA**
21:30 (10 / 13 €)



EKA 07 // 80s-90s
SINGLES PARTY by
THE HITS + DUAL (LA VOZ)
20:45 (15 € + copa)



EKA 14 // **Dr QUEEN**
21:00 (16 / 20 €)



EKA 19 // **AGAINST ME!**
+ G.A.S. Drummers + IM
21:00 (17 / 20 €)

André Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre

higiezin agentzia

BASERRIA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 310.000 €
116 m², logela 2, bainugela 2, 20 m²—ko
egongela, garajea, altzariz hornitua, 300
m²—ko lorategia, 3.logela egiteko aukera.
Erref.: 167.469



PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 125.000 €
80 m², logela 3, bainugela, sukaldea,
balkoiarekin, trastelekua, kanpoaldea,
eraberritzeko, negoziagarria.
Erref.: 167.346

PISUA SALGAI AUDION
Prezioa: 150.000 €
67 m², 4 logela, bainugela, egongela,
balkoiarekin, sukalde amerikarra, jakitokia,
kanpoaldea, igogailua, eguzkitsua.
Erref.: 163.813

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 192.000 €
82 m², logela 2, bainugela 2, sukalde
amerikarra, kanpoaldea, eraberritua,
trastelekua, igogailua, negoziagarria.
Erref.: 167.202

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu

MARGOTU

10:00etan

AUZOLANA

+ PIKNIK

13:00etan

TXISTORRA, BACON,
TXAKOLI, ARDOA,
FRESKAGARRIAK,
TORTILLAK, FRUTA,...

ETA

AUZOLANA LAMUZA PARKEAN: Auzolana egingo dute Lamuza Parkean datorren ekainaren 7an, 10:00etan, SOS Laudioko Lamuza Parkea plataformak antolatutik. Parte hartzeko lamuza@sosparkea.com eraizen-abizenak eta NAN zenbakia bidali behar dira, udalak segurua egingo baitu.



GURE ESKU DAGO: Aiaraldeko herri gehienetatik abiatuko dira autobusak igandearen erabakitzeko eskubidearen aldeko giza-katean parte hartzeko. Eskualdeko 1500 pertsona baino gehiagok izena eman dute Argazkia: Aitor Burgoa

_kontra

aiaraldea



Itziar
Urki
PSIKOPEDAGOGOA

_Leihotik

Duchennen irribarrea

Irrien lagunak garela esaten zuen batek, irriek irri gehiago eragiten dituztela beste batek eta benetako irri bakarra existitzen dela hirugarrenengo batek. Duchennen irribarrea da azken hau eta ezaugarri jakin batzuk izanda, %10 batek soilik du hura imitatzearen gaitasuna, gaitortzeko %90ak naturaltasunez aritzeko ohorea dauka. Edonork izan beharko luke Duchenne irribarre bat jasotzeko eskubidea, eta trukean zer? Beste bat bueltan, besterik ez. Egune-ro edozein txikitasetatik handitasunen bat ateratzen duzulako, tori. Beste pertsona baten beharren aurrean zure zena ahaztu ere egiten duzulako, zuretzat. Zaren bereziaz ohartu ere egiten ez zarela, jaso ezazu goxoa bat. Zarena izateaz harro zaudelako, erraldoia eta algara. Milaka oparitu dituzulako irribarre xume hau jaso baino lehen, horra hor merezitakoa. Garai latzak benetan latzak direlako, zuentzako. Garai onak konpartitzeko daudelako, hona hemen. Duchenne argi zeukan, irribarre zintzo bakarra dago, ezaugarri batzuekin, itxura bereziarekin, keinu bereizgarrieekin. Irribarre bakarra, sentitzen dena da, mundura zabaltzen dena. Irribarreak kilometroak egin ditzake, hodeiak zeharkatu, mugatik harat, beraz, azken hau, zuretzat, bihotzez.

Ernesto Navarro *Binilo bildumazalea*

“Tamaina agian garrantzitsua da binilo bildumetan. Baina inportanteena kalitatea da”

ERNESTO NAVARRO (Laudio, 1969) irakaslea da eta 30 urte eman ditu binilo diskoak biltzen. Bilduma ikaragarria du eta bere bizitzan denbora ugari ematen dio zaletasunari.

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Zenbat binilo disko dituzu zure bilduman?

4320 inguru. Ez da hainbeste baina ez dira gutxi.

Eta zenbat leku behar duzu bilduma izateko?

Nire etxean gela batean daukat. Eskerrak lkeak altzari egokiak diseinatu zituen. Horri esker egun ez da arazoa diskoak antolatu eta gordetzea.

Liburuak eta diskoak gela berean daukat eta ez da oso gela handia. Bazter ilun bat da. Baina egia da diskoek leku asko behar dutela.

Lehen altzari egokiak lortzeko diru pilo bat gastatu behar zenuen. Nire kasuan gurasoen etxean nituen diskoak eta aita beti kexatzen zen.

Bildumazaleen artean tamaina garrantzitsua da?

Ez dakit, suposatzen dut baietz. Baina azken finean umekeria da. Nire kasuan bizitza osoa ematen dut gauzak biltzen: komikiak, liburuak, diskoak... Tamaina behar bada garrantzitsua da, baina benetan inportantea dena kalitatea da.

Nik, adibidez, ez dut ia-ia gogoko ez dudan diskorik, 30 edo 40 gehienez.

Zer poztasun mota ematen ditu diskoak biltzeak?

Bi mota. Lehenik eta behin diskoak aurkitzea. Normalean ez da hain erraza edo merkea nahi duzuna lortzea. Topatzen dudanean sekulako adrenalina igoera dut. Bestalde, musikaren kasuan asebetetzea oso azkarra da. Diskoa jartzen eta entzuten duzu eta hor dago.

Zure testamentuan jasota daude zure diskoak?

Ez. batzuetan pentsatzen dut ondo legokeela liburutegi bati uz-

tea. Baina oraindik ez daukat oso argi. Norbaitek disfrutatu beharko lituzke. Objektuak dira baina aldi berean agiriak dira: garai batena, gizakiaren irudimena... eta jendeak disfrutatu behar ditu. Hil eta gero ez dago ezer, beraz... Kontua da krisialdi garai honetan liburutegiek ez dutela dirurik oparitzen dietena kudeatzeko.

Taberna batean ere utzi ditzaket, jendeak entzun ditzan.

Zer gertatzen da beste bildumazale batek zuk nahi duzun diskoa lortzen duenean zure aurrean?

Sutan jartzen naiz nire buruarekin. Bakarrik birritan edo hirutan gertatu zait baina oso deserosoa da.



Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2 LAUDIO
www.grafiksarea.com
info@promo-grafik.com
Tel: 94 672 65 43
M: 615 75 85 92



ESKA IEZAIGUZU BEHAR DUZUN PRODUKTUA ETA LORTUKO DIZUGU///

KAMISETAK, OPARIAK,
USB-AK, KOPAK, POLTSAK...
SERIGRAFIA, BORDATUA,
BINILOA, INPRESIO DIGITALA